

# ttipi ttapa

2003ko apirilaren 24a • XXIII. urtea



## Pantxika eta Graxi Solorzano kantuan

03

Euskara irakasteko musika eta jokuak uztartzen dituzte beraien kantuetan Graxi eta Pantxika Solorzano Azkaingo ama-alabek. «Kukuka» diska plazaratu dute.



## Hauteskunde sindikalen emaitzak

04

Ordezkaritza sindikala hautatzeko bozak emanak dituzte dagoeneko eskualdeko lantegi gehienetan. Sindikatu abertzaleak dira nagusi.



28

## Emakumeak errugbian: Hiru baztandar nafar selekzioan



# BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

## Jakinarazten dut:

2003ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

## Ordaintzeko era:

### Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan egiten da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

### Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

## Ordaintzeko epea:

- 2003ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2003ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasa ondoren, premiamentuzko exekuzio bidez %20 errekararekin kobratuko da.

*Bortzirieta, 2003ko apirilaren 1ean*

Presidentea  
Miguel M<sup>a</sup> Irigoien Sanzberro

## 2003. URTEKO TASAK

### ERABILTZAILAEN eta TASEN MAILAK

#### KONTZEPTUA EUROAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez: .....	60,26
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak: .....	51,26
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: .....	42,16

#### 1. Merkataritza eta zerbitzuak.

Elikagaien eta elektragailuen sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ilepaindegia, lan bulegoak: .....

60,26

#### 2. Merkataritza. Elikagai dendak

(harategiak, arraindegia, janari dendak), elektragailu dendak eta farmaziak: .....

120,08

3. Merkataritza. Autozerbitzuak: .....

180,28

#### 1. Ostalua. Noizbehinka irekitzen diren

ostalua eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m<sup>2</sup>ko edo gutxiagoko azalera dutenak: .....

120,08

#### 2. Ostalua. 30m<sup>2</sup> baino azalera

handiagoko ostalutak eta janari denda daukaten ostalutak: .....

240,50

3. Ostalua. Pub eta diskotekak: .....

300,46

#### 1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak

dauden Elkarte gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: .....

300,46

#### 2. Jatetxea. Borts mahai baino

gehiago dituzten jatetxeak: .....

540,88

Landetxeak: .....

120,56

Zaborrontzira 200 metrotik

500 metrora dauden landetxeak: .....

102,44

Zaborrontzira 500 metrotik gora

dauden landetxeak: .....

84,34

#### 1. Hostala. Hamar logela

edo gutxiagokoak: .....

420,48

#### 2. Hostala. Hamar logela

baino gehiagokoak: .....

600,78

#### Merkataritzako saltokiak,

jatetxerik gabekoak: .....

600,78

#### Merkataritzako saltokiak,

jatetxedunak: .....

901,26

Lantegiak, lau langile bitarte: .....

60,26

Lantegiak, 5-10 langile bitarte: .....

120,08

Lantegiak, 11-30 langile bitarte: .....

300,46

Lantegiak, 31-60 langile bitarte: .....

600,78

Lantegiak, 60-150 langile bitarte: .....

901,26

Lantegiak, 150-300 langile bitarte: .....

1.707,76

Lantegiak, 300 langile baino

gehiagorekin: .....

2.517,14

Zuzenean zabortegira botatzea;

prezioa metro kubiko bakoitzeko .....

18,00

Neumatikoak zabortegian uztea;

prezioa kilo bakoitzeko .....

0,23



## DATUAK...

- **Pantxika Solorzano 28 urteko musika irakasle azkaindarrak bigarren diska karrikaratu zuen abenduan, Durangoko Azoka kari.**
- **Irakaskuntza munduan erabiltzeko baliagarriak dira, batez ere kantuak. Lehen diskak «Kantiruri» izenburua zuen, oraingoak «Kukuka».**
- **Graxi amarekin batera prestatzen ditu hitzak eta musika. Gero, antolaketa eta moldatze lanak Urruñako Jean Marc Halsuet musikariarekin batera egiten ditu.**



**Pantxika eta Graxi SOLORZANO** *Azkaingo kantariak*

ARGAZKIA: ENEKO JORAJURIA

# «Euskara irakasteko musika eta jokuak uztartzen ditugu kantuetan»

Aitor AROTZENA

Noiztik ari zara kantua munduan?

Duela bost urte hasi nintzen kantua munduan, gitarrarekin hasi nintzen idazten juxtuki haurrentzat kantu batzuk idazten, beste batzuk nerretzat, helduentzat...

**Nola sortzen dituzu kantuak?**

Hitzak ama eta bien artean egiten ditugu eta musika nik egiten dut. Hori dena prest dugularik Jean Marc Halsuet-ekin batera antolaketa lana egiten dugu. Testuak beti ere berriak dira, ez ditut bertzeen olerkiak edo kantutegi tradizionaletik hartzen. Takolo, Pirritx eta Porrotzek edo Imanol Urbietak badituzte haurendako kantuak, baina hemengo euskarari, lapurtarrez landu nahi badugu edozein gai geronek sortu behar ditugu kantuak. Adibidez, «Pinpirina» gaia hartzen badugu, horren inguruan erabili nahi dugun hiztegi guzia hartzen dugu, nola har sortzen den... eta horrekin kantua osatu.

**Zure kantuak haurren irakaskuntzari zuzenduak dira batez ere?**

Lehen diska 3-10 urte arteko haurrei

**«Lehengo musika tradizionala atxikiz, musika modernoari ateak irekitzeko gogoa dugu oraingo musikari gazteok, hortik zerbait berri ateratzeko»**

zuzendua zen. Bigarren hau zabalgoga da gehien bat musikaren aldetik osatuagoa delako, soinu elektronikoak sartu ditugu ordenagailuarekin, modernoagoa da, baina gaiak normalki haurrekin lantzen ditugunak dira. Adibidez, astea edo hilabeteari buruzko kantuak dira. Guk haurren irakaskuntzan erabiltzen ditugu, baina baliagarriak dira euskara ikasten ari diren guzientzako. Haurrentzako diska izanik, entzule gisara edozeinek entzun dezake.

**Zer agertarazi nahi duzu zure kantuekin?**

Euskarak duen musikalitatea eta poesia hori nahi diogu haurrei helarazi, hizkuntza horren edertasuna eta aberastasuna gaztedanik jastarazi. Haurrak kantua eta jokuen bitartez plazer ainitzekin ikasten du hizkuntza bat, hobekiago.

**Helduentzat kantuak ere prestatu dituzula aipatu duzu arestian... Hori-ekin diska plazaratzea gustatuko litzaizuke?**

Hori nahi nuke lehenik osatu eta ez da batere prest, baina egun batez asmoa nuke, bai.

**Orokorrean, nola ikusten duzu kantugintzaren egoera Iparraldean?**

Gauza da kantu tradizioan aberastasun handi bat badugula. Baina nik ikusten dut oraingo gazteok eta musikariok beste kulturei eta musika modernoari ateak irekiz badugula gogoa, ez lehengoari ostiko emaiteko, baina bai berria erabiltzeko. Beti lehengo atxiki, baina ez helburu gisa baizik eta hortik beste zerbait berri ateratzeko. Ez dugu beti gure tradizio horretan gelditu nahi, baina bai hori hartu, ongi lixeritu... nik gogoa nuke musika elektronikoari lotzea, Euskal Herrian beste musika mota bat sartzea.

**Herri Urratseko kantuan ere parte hartu duzu aurten...**

Aurten hogeita urte betetzen ditu eta hamar mutiko kantari eta hamar neska hartu dituzte, tartean ni.

## HAUTESKUNDE-EMAITZEN ARABERA

# Sindikatu abertzaleek gehiengoari eusten diote eskualdeko lantegietan

Joan den urte bukaeran eta urte hasiera honetan lantegiz lantegi egin diren hauteskunde sindikaletan sendotu egin da sindikatu abertzaleen nagusigoa, batez ere ELArena (+5).

ELA eta LABen artean delegatu guztien %85 biltzen dute eta Estatu Espainiarrean —eta baita Nafarroa Garaiko zati haundi batean ere— nagusi diren UGT eta CCOO sindikatuak, hemen, langilegoaren %9ko ordezkariak dute. Duela lau urteko emaitzekin konparatuz, halere, UGT izan da gehien hazi dena portzentatetan, batez ere Aceralian erdietsitako emaitzengatik.

J. IRIGOIEN

Maiatzaren bateko Langileen Eguna bertan dugula, eskualdean azkeneko hauteskunde sindikaletan izandako emaitzak aztertu nahi izan ditugu. Lantegiz lantegi ordezkari sindikalak eta enpresa batzordeak aukeratzeko prozesua, joan den urte bukaeran eta urte hasiera honetan egin da. Hemendik aitzinera ere, ordezkari sindikalen hautatze prozesua ez da geldituko, eta tauletan ageri den moduan, hurrengo hilabeteotan egingen dituzte lantegiko hauteskundeak zenbait lantegitan. Gehientsuenetan, ordea, bizpahiru urteko iraupena izanen du indarrean duten lan-hitzarmenak.

## SINDIKATU ABERTZALEEK EUTSI DIOTE GEHIENGOARI

Hauteskunde-emaitzen arabera, ELA eta LABen erabateko nagusigoa ondorioztatzen da. Hau idazteko tenorean eta eskuratu ditugun datu ofizialen arabera, 143 ordezkari sindikal daude zerrendako lantegietan, eta guztien artean ELA da ordezkari gehien lortu duen sindikatu, 81 guztira (%56,6). LAB da bigarrena 40 delegaturekin (%28). Bien artean 121 delegatu dituzte, ordezkari guztien %85a. Halere, duela 4 urteko emaitzekin konparatuz, portzentai hori 4 puntutan murriztu zaie sindikatu abertzaleei, batez ere UGT eta CCOOren mesedetan. Izan ere, epe honetan UGTk hirukoitzu egin du delegatu sindikalen kopurua (lehen 3 zituen eta orain 9) eta CCOOek bikoitzu (lehen 2 zituen eta orain 4).

Gainerako 9 ordezkariak paretsu banatu dira: udal funtzionarioen ordezkarietan ez dago apenas aldaketarik (Afapna) eta Aceraliako kasuan ESK-CUISek ordezkari bat galdu du Confederación de Cuadros-en mesedetan.

## “AFILIATU GABEAK”

Lantegien zerrendan ez dira agertzen eskualdean dauden lantegi guztiak. Legeak onartzen duenez, sei langile edo gehiago dituzten lantegietako langileek beren ordezkari sindikalak aukeratzeko eskubidea dute. Hori horrela izateak, ordea, ez du erran nahi momentu honetan sei langile edo gehiago duten lantegi guztiek badutenik ordezkari sindikalik. Zenbaitzutan, nagusien presioengatik, eta bertze batzue-

### ORDEZKARITZA SINDIKALA LANTEGIZ LANTEGI (2003/04/10)

ARANO	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Heinnekens España	Edariak	105	4	3	2	0	0	2006/12/01

ARESO	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Embalajes Leitza	Zur-Industria	6	1	0	0	0	0	2004/03/03
Hormigones Leitzaran	Zementua	8	1	0	0	0	0	2005/06/19
Mandrilladora Leitza	Arte grafikoak	22	0	1	0	0	0	2007/02/19

BAZTAN	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Albaitaritza	Bulegoak	29	0	1	0	0	0	2005/08/17
Baztango Udala	Funtzionario	25	0	0	2	0	1	2003/06/09
Baztango Udala	Administratza	14	0	1	0	0	0	2003/07/12
Benito Menni (Pilar)	Erresid. Prib.	103	9	0	0	0	0	2006/03/11
Canteras Acha	Eraikuntza	7	1	0	0	0	0	2006/10/08
Ciabar Obras-Const.	Eraikuntza	8	0	1	0	0	0	2006/12/04
Const. Baztangoiza	Eraikuntza	12	1	0	0	0	0	2006/03/04
Const. J.B. Iturria	Eraikuntza	11	0	1	0	0	0	2007/03/27
Fco. Javier Iriarte Er.	Erresid. Prib.	48	3	0	0	0	0	2006/12/11
Ikastola Baztan	Naf. Ikastolak	11	0	1	0	0	0	2006/11/06
Marmoles Baztan	Zementua	38	0	2	0	0	0	2007/02/14
Panificad. Baztanesa	Okindegiak	22	0	1	0	0	0	2007/02/17
Xorroxin Elkarte	Bulegoak	8	0	1	0	0	0	2006/05/17

BERA	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Aceralia Rotec	Metal Indust	12	0	0	1	0	0	2007/03/05
Berako Udala	Funtzionario	8	1	0	0	0	0	2003/04/30
Colegio Sagrado Corazón	Irakas.Priba	13	1	0	0	0	0	2006/12/08
Composites Gurea	Zur-Industria	41	3	0	0	0	0	2006/11/24
Conservas Martiko	Haragi-Indus	75	9	0	0	0	0	2005/04/22

## Eskualdeko datuak Nafarroa Garaia



### BAZTAN-URDAZUBI

ELA	15	(+3)	%57,7
LAB	8	(+2)	%30,8
UGT	2	(-1)	%7,7

### BORTZIRIAK

ELA	42	(-3)	%57,1
LAB	21	(+1)	%28,5
UGT	5	(+5)	%6,4

Delegatu kopuruaren ondoan, azken hauteskundeetako diferentzia markatu da

### LEITZALDEA

ELA	14	(+2)	%50,0
LAB	11	(-4)	%39,3
UGT	2	(+1)	%7,1

### MALERREKA-BERTIZAR.

ELA	10	(+3)	%90,9
CCOO	1	(+1)	%9,1
LAB	0		%0

## DATU OROKORRAK

	1999/04/14	2003/04/10
Lantegi kopurua	62	63
Zentsoa (langileak)	3.114	3.221
Delegatuak (osotara)	131	143
ELA	76	81
LAB	41	40
UGT	3	9
CCOO	2	4
ESK-CUIS	3	2
Besteak (AFAPNA, C.Cuadros...)	7	7

tan, ordezkari izateko inor ez delakoz aurkeztu. Kontua da badirela zenbait lantegi hauteskunde sindikalak egin ez dituztenak.

"Afiliatu gabe" izenarekin, ordeak, berte kontzeptu bat ere adierazi nahi izaten da. Gaztelaniaz "sindicato amarillo" deitzen dena. Lantegi zehatz batean antolatzen den sindikatu edo "langileen ordezkariari" ematen zaio izen hori, langileen ohiko sindikatuekin loturarik ez duenari. Sindikatu hauen lan-eremua lantegi bakarrera mugatzen da generalean, eta lan-arazoak sortzen direnean ikuspegi sindikalek dituzten limitazioak ere begibistakoak dira. Berako "Manufacturas Alco" edo "Verkol" en, adibidez, gisa horretara daude antolatutak.

## ORDEZKARITZA DATUAK LANTEGIKA ETA HERRIKA

### ORDEZKARITZA SINDIKALA LANTEGIZ LANTEGI

(2003/04/10)

BERA	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Embalajes Bera	Zur-Industria	9	1	0	0	0	0	2006/11/28
Embalajes M.Martinez	Zur-Industria	15	0	1	0	0	0	2006/12/09
Gure Palma	Zur-Industria	9	1	0	0	0	0	2003/06/25
Hormigones Arkaitza	Garraioak	20	0	1	0	0	0	2003/05/31
Ikastola Labiaga Koop.	Naf.Ikastolak	23	0	1	0	0	0	2006/11/04
Industrias Lan	Metal Indust	17	1	0	0	0	0	2006/10/15
Musika Eskola	Irakaskuntza	9	1	0	0	0	0	2003/04/13
Palmadera	Zur-Industria	28	1	0	0	0	0	2006/11/28
Savera	Metal Indust	165	9	0	0	0	0	2006/03/01
Talleres Mecanicos Elkar	Metal Indust	34	1	2	0	0	0	2005/10/29
Talleres Zelaieta	Metal Indust	16	0	1	0	0	0	2006/10/24
Tecnopet	Kimika-Indus	39	0	2	0	1	0	2006/05/20
Venta Arrago Bide	Merkataritza	21	0	1	0	0	0	2003/10/25
Zalain Jatetxea	Ostalaritza	10	0	1	0	0	0	2006/12/19

BERTIZARANA	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Aiansoro	Ikusk. Kirola	9	1	0	0	0	0	2005/03/21

DONEZTEBE	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Ambul. Baztan-Bidasoa	Anbulantziak	38	2	0	0	1	0	2005/05/16
Aparan	Zur-Industria	17	1	0	0	0	0	2003/04/30
Doneztebeko Udala	Funtzionario	7	1	0	0	0	0	2007/03/31
Est. Serv. Kontxa	Gasolindegia	8	1	0	0	0	0	2004/01/28
Sagaseta, Ter. (Kontxa)	Ostalaritza	12	1	0	0	0	0	2007/01/09
Vliesena Iberica	Beira indust.	17	1	0	0	0	0	2003/06/23

ERATSUN	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Mariezkurrena Hnos.	Autobusak	16	1	0	0	0	0	2003/04/16

ETXALAR	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Maderas Irigoyen	Zur-Industria	7	0	1	0	0	0	2004/06/19

IGANTZI	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
ATM	Metal Indust	19	1	0	0	0	0	2004/02/15

ITUREN	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Contr. Lizarra	Eraikuntza	6	1	0	0	0	0	2006/10/15

LEITZA	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Leitzako Udala	Administraz	17	0	1	0	0	0	2003/07/02
Leitzako Udala	Funtzionario	4	0	0	0	0	1	2003/11/22
Mankomun. Leit-Goiz.	Administraz	17	1	0	0	0	0	2007/01/15
Sarriopapel y Celul.	Papergintza	449	7	6	0	0	0	2006/12/10

LESAKA	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Aceralia Transf.	Metal Indust	1342	5	6	5	2	2+3 <sup>(1)</sup>	2006/10/07
AndreMari erresid.	Erres. Pribat	14	0	1	0	0	0	2003/07/05
Asad. Sidr. Zubiondo	Ostalaritza	11	0	1	0	0	0	2006/12/17
Ayala Garcia J.D.	Metal Indust	12	0	1	0	0	0	2006/11/28
Echeveste Hnos.	Zur-Industria	31	1	0	0	0	0	2006/11/26
Exc.Transp. Orsa	Eraikuntza	18	1	0	0	0	0	2006/12/04
Hidro Rubber Iberica	Kimika-Indus	65	3	0	0	0	1	2004/10/02
IBM Global Service	Bulegoak	10	1	0	0	0	0	2007/02/21
Lesakako Udala	Funtzionario	7	0	0	0	0	1	2003/04/19
Sarobe Hnos.	Eraikuntza	9	1	0	0	0	0	2006/11/20
Tantirumairu	Naf.Ikastolak	10	0	1	0	0	0	2006/11/05

URDAZUBI	Komenioa	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Besteak	Iraupena
Marmoles Urdax	Eraikuntza	8	1	0	0	0	0	2006/10/09

Oharra:

<sup>(1)</sup> 2 delegatu ESK-CUIS-ek eta 3 delegatu Confederación de Cuadros-ek



Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Frankeo Itundua: 34/79  
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidente:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena.  
**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konxti Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.  
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...  
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Lesakako ONIN udal taldearen azalpena:

Martxoaren 20an TTIPI-TTAPA aldizkariak argitaratutako alean, datozen Udal Hauteskundeei buruzko erreportaiaren hauxe agertzen zen; «Bertze zenbait herritan Aralar-eko militante eta sinpatizanteek kandidatura zabalagoen aldeko apostua egin dute. Lesakan, konparaziora, Onin Plataformaren alde ari dira lanean».

Lesakako «Onin» Hauteskunde Taldeak baieztapen horren aintzinean honako hauxe azaldu nahi du: gure taldea ikuspegi eta sentsibilitate ezberdineko pertsonen osatzen dutela, beraz anitza dela. Herriaren alde lan egin nahi izateak batzen gaitu eta ez daukagu inolako depen-

dentziarik inongo alderdi politikoarekin.

Fermin  
ALTZUGARAI  
Lesakan,  
2003ko apirilak 1.

### «Aztarnen Hatsa» zuzenketa

«Aztarnen Hatsa» antzerkiaren inguruko informazioan, Lamixene taldeak parte hartu zuela agertu dugu bai aldizkarian baita ttipi-ttapa telebistan ere eta antzezlanaren zuzendariak jakinarazi digunez hori ez da zuzena. Lau Kato taldea izan da aipatutako bertze taldeekin batera elkarlanean aritu dena, baina ez Lamixene. Barkatu eragozpenak.

Erredakzioa.

### Euskera

Bere bizitza euskeraren aldeko lana bihurtu zuen Herriko gizon bat euskeraren jakintzaz arduratua Zoritxarrez nahiko gazte joan zen Satrustegi. Eta bere gorputzaren lurperatze egunean Euskalerra gezur handi bat dela irakurri nuen. Egun honek, gizon honengatik, errespetu gehixeago merezi zuen. Gezur handia da Euskalerra gezur handi bat dela Pasatutakoa pasatuta dagoela diotenari diot. Denak garela nahi badugu edo ez Pasatutakoaren ondorio eta etorkizunaren oinarri. Aspalditik lur honi deitzen zaio Euskalerra. Milaka urte ditu euskerak. Eta gaur badakigu hemen jaio zela Euskerak egiten du euskalduna. Eta euskaldunak Euskalerra. Euskaldunen lehenengo egitura Nafarroako Erreinua izan zen Nafar errege batek Euskerari Lingua Navarrorum deitu zion. Eta nonbait inoiz euskera egin ez den Erriberari Erromatarrek Ager Vasconum deitu. Gaur gutxi egiten dela dirudi. Garai hartan zenbat egiten ote zen Zergatik ote da gutxitu. Gaurko gizarteak gerraren aurkako jarrerak azaltzen ditu. Agintariei aurre eginez. Garai hartan eta ez hain urrutik, atzo Gerraren bidez zatitu zen euskeraren eremua. Gerrak ekarri zuen gaztelaren indartzea eta euskeraren itotzea. Gamazadak desagitea ekarri zuen konkistaren hausturatik. Gaur badirudi desagindakoaren aztarnak ere desagertu nahi direla. Gaur euskeraren kontra ez dagoela askok esaten du. Baina ez al da kontra egotea alde ez egotea. Nola esan liteke Euskalerra gezur handi bat dela. Euskera da Euskalerra martxan giltzen duen giltza. Horregatik ditu hainbat aurkari giltza horrek. Zer handia den euskera, zenbaterainokoa bere itzala. Euskaldunak euskera eta Euskalerraren alde egitea. Arnasa hartzea bezala du. Konturatu gabe egiten duen zerbait. Eta egiten ez badu hil egingo da.

Iñaki PERURENA.

**harpidetzak 03**  
**harpidetzak 03**  
**tarifa berriak**

ESPAINIA	25 €
EUROPA	35 €
AMERIKA	105 €
Baztan, Bertizarana, Urdazubi, Malerreka, Leitza-Areso	20 €
Sara, Senpere, Azkain okinekin	30 €
Sara Herriko Etxeko Edantegian	20 €
Bortziriak, Goizueta eta Arano	DOHAINIK

AGENDA  
LIBRO, DISKA ETA JOSTOLA

ttipi-ttapa urtebeletze

wikerrizketa • arreportaia • iritzia • herriko herri • kirola • gurekin jarraituz • auzokariak • irizketa • urtebeletzeak

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias 2003-04-06

«Ezin duzu pentsatu halako egunetan halako marka egin behar duzula. Bost kilo gehiago altxatzea urtebeteko lanaren ondorio izan daiteke. Eta behin pisu batera ailegatzen zarenean, kilo bat gehitzea neke ikaragarria da. Nik honetan segituko dut ongi nagoen bitartean. Gehiago ezin dudanean eta lesionatzeko arriskua ikusten dudanean erritmoa baretuko dut».

Inaxio PERURENA  
Leitzako harrijasotzailea  
D. Noticias 2003-04-06

«Gazteak indartsu datoz eta maila igotzen ari dira, arrazoi simple batengatik. Tiki-ttikitatik bertso eskolan ibiltzen dira, lantzen dute. Bere gisan bertotan ikasten duenak bizio batzuk hartzen ditu, hankaluzueak, etenik ez egitea... eta bizio horiek kentzen denbora behar da. Nahiz entrenamenduan bizio horiek ez atera, gero estualdietan ateratzen dira»

Bittor ELIZAGOIEN  
Arraiozko bertsolaria  
Nabarra 2003-04

• 11 GALDERA LABUR •



**Bittor ELIZAGOIEN** *Bertsolaria*

**Mende laurden bat Nafarroako txapelketan parte hartzen. Zertan aldatu da bertsolaritza?**

Teknika aldetik pila bat aldatu da eta mailak ere goiti egin du.

**Zertan aldatu da Bittor Elizagoien?**  
Lehen baino gehiago zentratu naiz eta lasaiago hartzen dut.

**Bertze 25 urtez aritzeko animoak eman zizkizuten. 2028 antablatu gainean ikusten duzu zure burua?**

Amets polita da, baina betetzea zaila.

**Alabak bertsoa kantatuz omendu zintuen. Etorkizuna segurtatua dago?**  
Bertsolaritzaren etorkizuna hagitz ongi ikusten dut.

**Bortzirietako bertze finalista berrien bat ikusiko dugu abudo xamar?**  
Datorren urtean bertze bat izanen da.

**Zure bi txapelak Lesakan irabaziak dituzu. Aurten zergatik ez?**

Aurten leku ezberdina zelako.

**Beraz, frontoian dantzalekuan baino gustorago mugitzen zara...**  
Baliteke, bai (irriz).

**Mikel Goñi, Iñaki Otxandorena edo Julian Retegi?**

Herrikoak direlako Mikel eta Iñaki, baina nere idoloa beti Retegi izan da. Txirrita, Egaña edo Maialen Lujanbio? Egaña.

**Arraiozen sortutako oronoztarra edo Oronozen bizi den arraioztarra?**  
Bietarik, baztandarra.

**Oronozko saihebidetuek, zer eman eta zer kenduko dio herriari?**

Lasaitasuna eman eta komertzio tikierei bizia kenduko dio.

**I CHE**  
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA  
ZERBITZUAK**  
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziriak eta Malerrekan  
24 orduko zerbitzua beilatokian  
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404  
☎ 900 704704

**OBRA PROIEKTUAK**

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Bittoria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiak
Angeluak	Èrlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandorea' Mazzoa  
Zahar antzekoa Txapeatua

**ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK**



## BERTSOLARITZA

# Laugarren aldiz Nafarroako bertsolari txapelketa irabazi du Amets Arzallusek

Mila entzule baino gehiago bildu ziren martxoaren 20ean Lesakako finalean

## ttipi-ttapa

Amets Arzallusek laugarren aldiz segidan jantzi du Nafarroako bertsolarien txapelamartxoaren 30ean Lesakako Zambra aretoan jokatutako finalean gailendu ondotik. Azkeneko urteetan ohitura bihurtu denez, Sustrai Colina bere lagunak hurbiletik segitu zion, puntu bakarreko aldean baitzen txapeldun eta txapeldunordearen artean. 644 lortu zituen Ametsek eta 643 Sustrai. Hirugarren izan zen Xabier Silveira lesakarra ere hurbil izan zen, 635 punturekin.

Laugarren Estitxu Arozena lesakarra izan zen, 618 punturekin, Xabier Legarreta aranoarra bosgarren 613,5 punturekin, Julen Zelaieta beratarra seigarren, 611 punturekin. Seguru aski Zelaieta izan zen finaleko ezustekorik handiena. Bertso politik egin zituen eta azken puntuko xelebrieriekin Zambra aretoa



ARGAZKIA: AITOR

**1961ean, Nafarroako txapelketaren hirugarren edizioan txapeldun izandako Bautista Madariagaren eskutik hartu zuen txapela Amets Arzallusek.**

betetzen zuten mila bertsozaleen irri algarak sortu zituen behin baino gehiagotan. Ideia bikainak dituela erakutsi zuen, eta horiek boro-biltzeko patxada eta astia hartzen duenean bertsolari ona izanen dela nabarmen utzi zuen. Hendaiaiko Miren Arterte zazpigarren izan zen

610,5 punturekin eta zortzigarren Bittor Elizagoien 588,5 punturekin.

## 25 TXAPELKETETAN PARTE HARTU DUEN BITTOR ELIZAGOIEN OMENALDIA

Baina azkeneko postuarengatik ez zen triste izanen arrazoitarrak.

Izan ere, Nafarroako bertso txapelketan parte hartzen 25 urte bete dituelakoz omenaldi hunkigarria eskaini zioten. Amaia alabak bertsoa eskaini zion bukeran eta Estitxu Aroznak bertze hogeita bortz urtez bertsoan segitzeko animoak eman zizkion azken agurrean.

Ez zen jaialdi bukaerako momentu hunkigarri bakarra izan. Zortzi bertsolariak «Barandalla eta Koldo etxera!» zioen pankarta atera zuten, jendeak zutik txalotu zituen. Bertsozale Elkarteko Imanol Lazkanok, Silveirari saria eman ondotik, bertso ederra botatu zuen, berriki hildako Jose Mari Satrustegi goraiatuz. Eta azkenik, Bautista Madariaga aranztarrak, 1961eko Nafarroako txapeldunak, Amets Arzallusi txapela jarri eta bertsoa kantatu zioenean ere, txalo zaparrada ederra aditu zen aretoan.

Orokorrean finaleko saioa ez zen ikaragarria izan, baina tarteka bertso ederrak aditu ziren. Colinak Itoizeri buruz botatu zituenak, Amets Arzallusek etxeko saltzaile paperean kantatutakoak, Julen Zelaieta eta Xabier Legarreta bikotea, elkarri begira txurroak jaten zeudeneko saioa...



© 948631076 • BERA



Lanchas

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781



© 948630052 • Zalain • BERA



Rafa

600 819 640

PINTURAS LEGUIA S.L.

Eztegara 26, 2.C - BERA

ZJ  
Zalain  
jatetxea© 948631076 • Tfno. 948 63 09 67  
Bera - Nafarroa

LESKA



**BERA**

## Beratarrak nagusi Nafarroako Haur Kantu txapelketako finalean

Gaztetxoetan bakarka, binaka eta taldeka txapela herrira ekarri dute

**Amaia eta Ainhoa**

Urtero bezala, haur aunitz aritu dira Haur Kantu Txapelketan. Aintzineko urtetan Berara sariak ekarri izan dituzte eta aurten aurkeztu direnak ere ez dira guttiko izan. Finala, sekulako jendetzaren aintzinean, Gaiarre Antzokian egin zen. Lau sari lortu dituzte gure herriko kantari gazteek maila desberdinetan. Gaztetxoetan, 11-15 urte artekoetan alegia, hiru lehen-dabiziko sariak eskuratu dituzte Josune Elgorriagak bakarlariekin mailan, Ainhoa Lanz eta Amaia Irazokik bikoteetan eta Attonarriak taldeak talde mailan.

7 eta 11 urte arteko kantariak biltzen zituen haur ttikien mailan, taldekako bigarren saria ere Berako Axuria taldearentzat izan zen.



**Zalain Zokoko Jose Esteban Telletxeak arrantzatzen du denboraldi honetako Bidasoako lehen izokia. Lau kilo eta 850 gramoko pieza Iruñeko Arrain arraindegiak erosi dio 935 euroren truke (156 mila pezeta exkas). Zalain Zokoko Etxeberriko nagusiak 71 urte ditu eta duela lau urte ere, 1999an, bera izan zen lehenbiziko izokia ateri zuena.**

**Urteko kuotaren igoera Gure Txokoan**

Pasa den apirilaren 8an Gure Txokoa elkar-teak urteko Batzar Orokorra ospatu zuen, bertan ohiko gaiak aztertzeaz gain zenbait berrikuntza aipatu zirelarik. Erran behar da, deialdi zabala egin arren bazkideen parte hartzea hagitz murrizta izan zela. Hala ere, eta hartutako erabakien artean, berrikuntza bezala, urteko kuota 6 euro goituko dela aipatzen ahal dugu. Kuota hau goitzearen arrazoia elkar-tearen aurrekontua murriztu gelditzen dela izango litzateke, eta aspaldian igo gabe zegoela. Gainontzean, pasa den urteko kontuak eta aurtengo aurrekontuen errebasoa egin zen ohi den bezala.

**FLASH**

**Miriam Blas**

Aurtengo denboraldia-ri hasiera ezin hobea eman dio Miriam Blas Beratar txirrindulariak. Gazte hau "Caixa Galicia" taldean ari da aurtengoan eta duela hilabete bat gotti betti, Portugalen, Europa mailako frogan laugarren izan zen. Jarraian, Galizian bertze proba bat korritu ondoren Espainiako txapelketan lehen-dabiziko postua lortu du. Hilabete honetan berriz, Lleidan arituko da, oraingoan ere Espainiako txapelketako frogan batean.

**Berako sarrera itxia**

"Arkaitza" eta "Funvera" lantegien ondoan dagoen Berako sarrera itxia dago obrak egiten ari direlako. Errepide irteera hori hagitz txarra da eta horregatik norabide bakarreko bidea egitea erabaki da. Estetikoki ere inguru hori ez denez hagitz polita, berdegunea jarriko dute eta denborarekin eskultura bat jartzeko asmoa ere agertu du Udalak. Momentuz, obra akautu arte itxia dago bidea eta bukatzerakoan hortik ezingo da ateri, herrira sartzeko bakarrik erabili ahal izanen da.



ARGAZKIA: AYLA  
**Sinadurak biltzeko deia egin zen Beran AUB eta Berañez plataformen alde. Elkarte horiek legez-tatzeko sinadurak bildu zituzten Herriko Etxean.**

**Alzuri**  
Sukalde tresneria eta opariak  
Landare eta loreak  
Telefonoa: 948 630 370  
BERA

**KATEA - BIKE**  
Bizikleta Tailerra  
errepide, mendi, trekking eta haurrentako bizikletak  
Arropa eta osagarriak  
Salmenta eta konponketa  
Kanttonberri 1, bis • BERA  
Fax - Tel: 948-631218

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa  
Telefonoa: 629 44 96 02 • BERA

## LESAKA

# Rafa Maritxalar korrikalariak irabazi zuen «bere» lasterketa

Guztira 500 lagunek parte hartu zuten IX. Herri Lasterketan

## Aitor AROTZENA

Inor ez omen da profeta bere herrian, baina Rafa Maritxalarek erranera horri kontra egin dio aurten. Alde batetik, Batzoki elkarteak bere izena paratu diolako bederatzigarren aldiz antolatzen zuten Herri Lasterketari. Bertze aldetik, korrikalari lesakarrak ongi irabazi zuen apirilaren 6an egindako lasterketa hori. Beraz, Maritxalar izan zen egun hortako protagonista nagusia, baina ez bakarra. Berekin batera hainbat eta hainbat korrikalari, 500 inguru, aritu ziren kategoria ezberdinetan. Benjamin mailan Xabier Alvarez gailendu zen. Alebinetan, Ivan Alvarez eta Maite Lopez izan ziren azkarrenak eta infantiletan Mikel Igantzi eta Jone Zelaieta.

8 kilometroko proba nagusia Rafa Maritxalarek irabazi zuen (24'03"). Antonio Brubatarra izan zen bigarren sei segundura eta Ardoi taldeko Raul Amatrain hirugarren 9 segundura. Fernando Etxegarai beratarra bosgarren izan zen eta honenbertzez, bera nagusi zen maila herrikoian. Ramuntxo Lamothe sa-



ratarra hirugarren izan zen kategoria honetan. Rosi Talavera aisa gailendu zen senior mailako emakumeta. Gizasemeen beterano mailan Juanjo Vizcay izan zen bizkorrena eta emakumetan, Begoña Barandiaran.

Junior mailan, mutiletan, Jon Sola izan zen garaile. Nesken junior mailan berriz, Nerea Abrego izan zen garaile, Bidasoa Atletiko taldean ari den Idoia Maritxalar lesakarraren aitinetik. Kadete mailan ere bigarren izan Bidasoa Atletikoa taldean ari den Ioar Oteiza lesakarra.



ARTXIBOKOA

Igande honetan, apirilaren 6an egingen da Batzoki elkarteak antolatutako IX. Herri Lasterketa. Aurtengoan, Rafa Maritxalar herriko korrikalariaren izena hartuko du. Argazkian, lehendabiziko edizioetako bat ageri da. Eskuinean Rafa Maritxalar eta erdian Jesus Mari Calvo, bertze korrikalari lesakar handia ageri da.

## FLASH

## Gazte Olinpiada apirilaren 26an

Herriko gazte jendeak antolatuta Gazte Olinpiada egingen da larunbat honetan. Horretarako zortzi laguneko taldeak osatu dituzte kodrila ezberdinek eta goiz-arratsalde probak izanen dituzte. Goizean, «Altxorraren bila» proba izanen dute eta paella egin beharko dute. Paella horiek eta pintxoak izanen dituzte bazkaltzeko. Indar berri ondok, arratsaldean proba konbinatua izanen dute.

## Sokatira taldea azpitxapeldun

Irungo Urantzu pilotalekuan jokatu zuen Betti Gazteko taldeak aurtengo Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketako azken finala, 640 kilokoa. 600 eta 560 kiloko finaletan gertatu bezalaxe, lehen tiraldia irabazi egin zioten Abadiñori, baina bigarrena eta hirugarrena bizkaitarren alde erori zen, baita txapela ere. Beraz, hiru kategoria horietan azpitxapeldun eta 680 kilotan laugarren izan da aurten herriko sokatira taldea.

## Moda desfilea Zambran

Arrakastatsua suertatu zen apirilaren 6ko moda desfilea Zambran. Inguru honetako hamasei arropadenda, ileapaindegi eta bertzelako komertzioek parte hartu zuten eta jendez gainezka ageri zen aretoa.

**IRU BIDE**  
ERRETEGAN  
Tfnoa: 948 637 127  
**LESAKA**

**ANJA**  
Janaridenda  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**XATURETXEA**  
Zuzen  
JATEXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**BEKO**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa · LESAKA  
Tfnoa: 948 637826

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa: 948 627 514  
Behoko Plaza 8, LESAKA



## ETXALAR

# Jon Iparragirre eta Joseba Genua bikain VI. Usategietako Auto Igoeran

Joseba Beola kotxean izandako arazo batengatik ez zen atera

### Joseba eta Nerea

Herriko gidariak bikain ibili ziren apirilaren 6an egin zen Usategietako Auto Igoeran. Hala ere aurtengo nobedadea Joseba Beola izan zen, aitzineko edizioetan hainbat sari eskuratu dituen gidariak ez zuelako aurten parte hartzerik izan. Kotxean izandako arazo batek galarazi zion parte hartzea. Bertzalde, Katton herritarra ederki ibili zen eta klasifikazio orokorrean 7. postua eskuratu zuen. Bere kategoriako lehenbiziko saria ere eraman zuen. Joseba Genuak ere egun ona izan zuen eta bere kategoriako bigarren postuan gelditu zen, Kattonen gibeletik.

Aurtengo igoerak ez digu istripu edo ezberharrik utzi. Aipatzekoa da eguraldi aparta izan

zela igandean eta horrek animatuta jende olde handia hurbildu zela Etxalarrera. Eguzki Sport eskuderiako antolatzaileak gustura ageri ziren lortutako arrakastarekin.

### Igerilekuetako arduradunak

Eguraldi onarekin batera uda-girorako presatzen ari gara. Horren lekuko bat udala izan da, dagoeneko Igerilekuetako arduradunak aukeratzeko lehiaketa egin baitu. Lanpostu hauegarako bi eskainta berrak aurkeztu ziren, hauen artean ez zen herritarrik. Udalak Lesakako Izaskun Obeso eta Rakel Deskargari eman die 2003ko udan igerilekuetako ardura. Urtero bezala, ekainaren 21etik abuztuaren 31a arte egonen dira irekiak.



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Joseba Genua eta Jon Iparragirre «Katton» herriko auto gidariak.

### Euskaldunon Egunkaria

Udalaren martxoaren 13ko osoko bilkuran Herri Taldeak Kontseiluak proposaturiko mozioa aurkeztu zuen. Hortan Etxalarko Udalak Euskaldunon Egunkariaren itxiera eta bere arduradunen atxiloketa salatzaren da, «euskararen normalizazioaren eta adierazpen askatasunaren aurkako erasoak direlako». Bertetik, EA alderdiak ere bere mozioa aurkeztu zuen eta hauek «Oinarrizko eskubideenganako konpromezutik, adierazpen askatasuna, informazio eskubidea eta atxilotutako enerrugabetasun presuntzio eskubidearen urraketa suposatzen duten Barne Ministerio-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Apirilaren 4an Edurne Elizondo kazetari beratarak azken hilabete hauetan Euskaldunon Egunkarian gertatutakoaren berri eman zuen hitzaldi interesgarri batean. 10 urte daramazki Edurnek Euskaldunon Egunkarian lanean eta lehen esku informatioa eman zuen Kultur Etxean bildutako 20 bat lagunen aitzinean.

aren eta Auzitegi Nazionalaren ekintza baretatuak» salatu zituzten. Bi taldeek Euskaldunon Egunkariaren aurkako erasoak akautu eta kioskoetan berriro egon

dadila exigitu dute, Egunkariaren zuzendaritza eta langileei elkartasuna adierazteaz gain. Honetarako 1200 euroko dirulaguntza ematea onartu du udalak.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

J. RAMOS  
zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut.

Tel: 948 631 342 BERA - Tel: 948 637 172 LESAKA

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri | • BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

HERRIKO  
JATYATU - JATYETEA

AMONTEA SARRA, 15 • 48843 UR JO  
TEL: 948 63 14 00  
TEL: 948 63 14 00



IGANTZI

Herria ezagutzuz

# Martxan da herrian Egunkariaren aldeko kanpaina

Apirilaren 26rako antolatu du Biltokik Goizuetarako bidaia

## Oskar TXOPERENA

Apirilaren 9an izan zen Biltoki Elkartean Egunkaria eta Korrikari buruz solasteko bilera. Bertan banatu zen Bortzirietako Korrikan erabili beharreko materiala, baina Egunkariarena izan zen bileraren gai nagusia. Gaia herrian pixka bat mugitzeko beharra ikusiz informazioa zabaltzen hasteko hitzaldi bat antolatzea erabaki zen, Egunkariako langileren batek emana. Haisera batean 25a eta 30a iduritu zitzaizkion jendeari datarik egokienak. Azkenean, ortziral honetan, apirilak 25, 21:30etan egingen da. Horretaz gain, Aste Santuko oporrak pasatu bezain abudo bo-noen salmenta hasiko da eta baita harpidedunen kanpaina ere.

## Biltoki Elkarte

Urtero garai honetan egin ohi duten bezala, Goizuetarako bidaia prestatu dute Biltoki Elkartekoek. Apirilaren



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Jakina da ez dela aurtengo Korrika ofizialaren ibilbidea Bortzirietako herrietatik pasatu. Halere, Bortzirietan barrena egindako Korrikan parte hartzeko hiru kilometro hartu zituen Igantzik: Herriko Etxearena, Biltoki Elkartea eta Eskolarena. Aldizkariaren egutegiarengatik ezin izan dugu martxoaren 12rako antolatutako ekitaldi horren argazkirik bidali, baina guttinez eskolako Haur Hezkuntza mailako 12 haurrak hartu ahal izan ditugu, bi irakasleekin Korrikarako kartelak eta dortsalak prestatzen ari zirenean.

26an egingen da eta johan nahi zutenek 20rako eman behar zuten izena. 20 laguneko guttinezko kopurua paretzea erabaki zuen Jun-tak.

Biltokiko kontuekin jarraituz, frontenis txapelketa jokatzeko ari de-

la erranen dugu, 7 bikoterekin. Liga moduan ari dira denak elkarren aurka astero-astero eta finalak maiatzaren 24ean egingen dira. Egin ez dena sagardotegirako ateraldia izan da, hagitx jende guttik eman duelako izena.

Bertzalde, badago bizikleta jeitsiera aurtin ere, Sanferminak inguruan, antolatzeko asmoa eta lehendabiziko harremanak ere hasiak omen dituzte, baina kontu horien berri emateko izanen dugu oraindik astia.

## Urtzallibaita eta Azpikoetxea

Bi etxe izan ziren 1884a bitartean Errementenea eta Belar-baitaren tartean: Urtzallibaita eta Azpikoetxea. Hirugarren bat ere agertzen da zenbait erroldatan leku berean, Etxetxia, baina ez dago soberra argi berez etxea zen edo lehen aipatu ditugun horietako bati deitzeko erabiltzen zen izena. Izan ere, berez leku estua da Errementenea eta Belar-baitaren tartekoa bi etxe sartzeko eta inguru horretan zaila dirudi hirugarren bat sartzea, gibekeko aldean ez bada.

Belar-baitaren ondoan zegoen Azpikoetxea eta hagitx mehea eta luzea zen: «tres metros y sesenta centímetros de frente y doce metros de fondo». Urtzallibaita, berriz, Errementenearen aldetik zegoen eta handiagoa zen: «cuatro metros y ochenta centímetros de frente y catorce de fondo». Erran bezala, 1884an bota behar izan zituen Herriko Etxeak: «por afectar al ornato y por evitar una desgracia en las personas que transitan en la referida calle».

1927an egindako sustan erosi zituen terrenoen Jose Martirenoa Matxikote Belar-baitakoak.

**B** BERRIZIUN  
Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak  
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
Alzate 17 • BERA • © 948 630 763

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
sukalderako altzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891  
Faxa: 948 637 511

## ARANTZA

# Herri kirol Jolasen txapelketan lan bikaina egin dute neska-mutilek

Gaztetxoan bi taldeak bigarren eta hirugarren lekuetan gelditu dira aurtengo lehiaketan

### Nerea ALTZURI

Joan den urtean baino goizago (maiatzaren 12an egin baitzen iaz final nagusia herriko frontoian) bukatu da Nafarroako herri kirol jolasen txapelketa. Apirilaren 6an Arbizun jokatu zen finala, proba konbinatu eta sokatira saioak eginenez. Lau jardunaldi pasatu eta gero, bertze urte batez finaleko txar-teldunak izan dira herriko kadete eta haur mailako taldeak. Gogoratuko duzue, herriaren ere kanporaketa bat izan zen lehiaketa sasoiaren barrena, martxoaren 15eko goizean. Aurten txapelik ez badute jauntzi ere iaz bezala, txalogarria da hogei inguru gaztetxoek eta beuren entrenatzaileek egin duten lana. Haur mailako taldeak hirugarren gelditu ziren eta kadete mailakoak azpitxapelkun proba konbinatuan. Txapelketa erregularra egin dute aranztarrek, saiotik saiora hobekuntza era-



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDIK UTZIA

### Arantzako I. Mendi Itzulia ekainaren 8an

Ez da elurrik ikusiko noski, baina ekainaren 8rako Arantzako Mendi Itzulia antolatu dute lehen aldiz herriko mendizale eta talde ezberdinek. 30-32 kilometroko itzulia izanen da herriko muga inguruetan barna.

kutsiz denboretan; alegia, kanporaketa batek bertara denbora hobeak egiten joan dira. Baina finaleko presio eta urduritasun puntuak bati hor izaki...

Martxoaren 9an abiatu zen aurtengo herri kirol jolasen txapelketa eta ordutik igande goi-

zak herri kiroltarako izan dituzte gaztetxoek. Emaizta onarekin, herri kirol jolasetan atseden orain... hurrengo urterarte edo aurten ere erakustaldirik eginen ote dute?

### Korrika

Bortzrietako Korrika

Batzordeak antolatu Korrika iragan zen Bortzrietatik apirilaren 12an. Arantza izan zen bigarren geldiene Etxalaritik abiatuta eta, bertan, Gazte Asanblada, Herriko Etxea, Ekaitza elkarte eta eskolako ordezkariak izan zen lekukoa eskuz esku pa-

satzerakoan, bertze herriarekin batera. Aipatu laurek kilometroak erosi dituzte aurten ere duela bi urte bezala, Korrikari laguntzeko. Herri inguruetan eta herri kaxkoan pasatuta izan da aurtengo herriko ibilbidea.

### Egunkaria aurrera!

Apirilaren 28an, astelehenean, Egunkaria itxi zutenez geroztik aitzinera eramaten ari diren ekimenen jarraipenaren berri emanen da, euskarazko egunkari berriaren proiektua sustatzeko asmoz. Egunkariaren aldeko ekimenak prestatzeko bilera idekia izanen da arratsaldeko 18:00etan Herriko Etxean. Hitzordu hori ailegatu bitartean, euskarazko egitasmoari laguntzeko bide ezberdinak daudela gogoratu: harpide egitea, bonoak erostea, materiala erostea (kamisetak, metxeroak, pinak...).

**ALBERGEA JATETXEA**  
© 948 634179  
ARANTZA

**Laudio pinturak**  
Pintura orokorrean  
Fatxadak, Auzo elkarteak  
Etxebizitzak:  
• Barnizatuak  
• Paper lenak  
• Gotele  
• Estukaketa, etabar.  
• Hormak leuneari  
• Pinturatuak  
• Estukaketa gaitu

948 63 16 02  
610 62 70 58  
SEDA

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA  
**ALFONBRAK** SALMENTA  
**PERTSIANAK** MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...



# MAIATZAREN



DONEZTEBE  
SANTESTEBAN

## Egitaraua

HAUR JOLASAK

- 11. Ekitaldi sindikala
- 12. Herri kirolaren erakusketa
- 14. Bazkaria akordeoilariekin
- 16,30. Dantzaldia orkestrarekin
- 19. Festa amaiera



**Nafarroako Langileen Batasun Orokorra**



## DONAMARIA

# Jauregiaren moldaketa lanek arkitektura saria jaso dute


Euskal Herriko Arkitektuen Elkargo Ofizialak emana

### ttipi-ttapa

Donamariako Jauregia zaharbertzeko proiektua egin zuen Maite Apeztegia Elso arkitektoak Euskal Herriko Arkitektuen Elkargo Ofizialak (COAVN) eskaintzen dituen sarietako bat eskuratu du aurtan lan horregatik. Gaur egungo jabeek 1994ean eman zioten mandatu hori Maite Apeztegiari eta Príncipe de Viana erakundearen oniritzia jaso zuen. Apeztegiaren erranetan, «*Erdi Aroko dorre ezohikoa da, ez da gisako bakar bat ere gelditzen, XV mende akabailan aisa erretzen zirelako*». Honen

aitzinetik, bertze bi aldiz ere eskuratu zuen COAVN saria Maite Apeztegiak. Dorretxe honek defentsarako baliabide aunitz zituen. Lau solairutan banatua zegoen, lehendabiziko biak harrizkoak eta goiko biak zurezkoak. XVII. mendean etxebizitzara joateko eskailera egin zitzaion albo batean.

Beheitikoan azien-dendako ikulua zegoen, bigarrenean bizi zen jendea eta goiko bietan belarra, lekaleak, gaztainak... gordetzen zizuten. Goiko bi solairuetako zura kasik oso rik kendu zen, egoera kaxkarrean zegoelako



ARGAZKIAK: DIARIO DE NAVARRA

**Goitiko bi solairuko kanpoaldeko zura hagitz hondatua zegoen eta ia erabat aldatu behar izan da. Zurezko bi solairuetako bat ageri da beheitian.**

eta berriz eraiki zen.

Lehendabiziko solairuak duen leze itxura mantendu zen, harrizkoak ateratzen baita. Harri hori lehendabiziko solairutik atera eta azkenera arte igotzen da, zurezko solairuetan tximinia osatuz. Eskailera, berriz, zurezkoak

dira eta arintzeko asmoarekin, kable batetik zintzilik daude, kolunpioen gisara. Honela, zutabeak aprobetxatzen dira eta ez da bertze posterik jarri beharrik. Solairu bakoitza eremu bakarra eta garbia izatea lortzen da modu honetan.

Donamariako Jauregiako jabeak Príncipe de Viana erakundearekin solasean ari dira orain. Erakunde honek jaso duten dirulaguntza handien trukean, hurrengo hamar urteetan Jauregia publikora irekitzea aztertzen ari dira.

**zapatadenda.**  
**kalotxa.**  
**osagarriak.**  
**konponketak.**

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

**SAROBE**  
**okindegia**

SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**JAURE - GOZOTEKIA**

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

**DROGUERIA MOLINERO**

DROGERIA LURRINDEGIA OPARIAK

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorea Profesionalentzat prezio berezia

Iturlandeta, 6 • © 948 63 02 40 • BERA

**ZUBIONDO JATETXEA**

Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
saqardoteqia jatetxea saqardoteqia

**GAZTANDEGIA**

**LIZUN**

Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

## MALERREKA

# Elgorriagako Rallyan inon baino argazkilari gehiago bildu zituen Izokinaren Kofradiak

Elurra kentzeko pala utzi dio Nafarroako Gobernuak Saldiaseri

Iban ISASI

Bidasoako Izokinaren Kofradiak hogeigarren urtez antolatutako Argazki Rallya inoiz baino arrakastatsua da suertatu da aurten. Elgorriagan 61 argazkilari bildu ziren, orain arte izan den kopururik handiena eta antolatzaileak gustora ageri ziren. Hau idazterakoan, oraindik ez dute irabazle berri eman. Dena den partehartzaileen egindako zozketan, argazki materialean 120 euroko saria Jesus Hernandez irundarrarentzat izan zen.

## Elurra kentzeko pala Saldiasentzat

Nafarroako Gobernuak elurra kentzeko pala utzi dio Saldiasko Udalarari, apirilaren 8an

Rafael Gurrea Nafarroako Gobernuak Saldiaseri Rafael Gurrea Nafarroako Gobernuko presidente ordeak eta Jose Ignacio Palacios Herri-lan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilariak Nafarroako hamaika herri eta kontzejuetako alkateekin sinatutako akordioaren arabera. Saldias eta Zugarramurdi izan ziren inguru honetan elurra kentzeko pala erabiltzeko aukera izanen dutenak. Tresna hauek hamaibortz urterako uzten dira dohainik eta mantedimendua gastuak udalaren esku izanen dira. Akordioaren arabera, elurra kentzeko orduan lehentasuna izanen dute errepedeek, gero herrietako karririk eta azkenik, bideek. Lehentasun hauek larrialdi egoeratan aldatzen ahal dira.



ARGAZKIAK: JON ALTZUGUREN

Euskal Herriko txirrindularitza itzulian, irudi ikusgarriak utzi zituen Saldias-ko igoerak. Jende aunitz gozatzen errepede bazterretan eta txirrindulariak sufritzen bizikleta gainean. Dena den, etapa nagusiak ez zuen sailkapen orokorra erabaki, biharamoneko Hondarribiako erlojuaren kontrako probaren zain. Donezteben, Lampre taldeko Marco Pinotti izan zen garaile.



- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia

102 Meaka auzoa  
20304 IRUN  
Tel.: 943 623 130



Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

616 513 497

**Pitti**

**ESKABAZIOAK**

C/Amelia,1  
32700 DONEZTEBE (NAFARRUA)



## OSPAKIZUNAK

# Hogeita bortz urte beteko ditu Nafarroaren Egunak igandean

Sei merindadeetako dantzariak bilduko dira goizeko emanaldian

### ttipi-ttapa

25 urte ospatuko ditu apirilaren 27an Nafarroa Egunak Baigorriin. Kari honetara, ekitaldi honen kultur eta euskal nortasunaren oinarriko printzipioak gogoratzeaz gain, kultur ekitaldi zenbait ere antolatuko ditu Basaizea elkarteak. Hauen artean, Nafarroako merindadeetako dantza taldeak gonbidatu dituzte igandean ikusgarri bat eskaintzeko, eta, apirilaren 26an, euskal musika tradizionala eta musika klasikoa elkartuko dira kontzertu batean.

Nafarroaren Eguna, Basaizea elkarteak urtero hilabete batez antolatzen duen kultur ekitaldien artean garrantzitsuena da, eta 25 urte hauek ospatzeko, Nafarroaren egunaren sorreraren printzipioetara itzuli nahi izan dute. «Nafarroaren Egunak jarraitu du 25 urtez, berari esker bultzatzen ditugun ideiegatik. Hau da elkartasun printzi-



ARTXIBOKOA

### Duela 12 bat urteko Nafarroaren Eguneko irudia.

*pioa. Bide horretatik, ekimen honekin gonbidapena zabaldu dugu Nafarroan euskal nortasun eta kultura atxikitze lan egiten duten elkarte guztientzat», argitu zuten aurkezpenean.*

Mezu honekin batera, 25 urte hauek hainbat kultur ekitaldiren bidez ospatuko dira. Na-

farroako merindade ezberdinetako dantza taldeak igande goizean bilduko dira Baigorriko plazan ikusgarri bat eskaintzeko. Ekimen honetaz gain, usaiako egitaraua zabalduko da Nafarroaren Egunean. Kalle ibilaldiarekin batera, zigante, dantzari, gaitazotzaile eta txistulariak

izanen dira goizean. Bazkaria eguerdian egingen delarik, arratsaldean, pilota partida eta musika emanaldiak agertuko dira. Tarteka ere, artisauen lan erakusketak izanen da herrian, eta Ezpela, Space Banako, Kuxkuxtu eta Elektrotuna txarangak agertuko dira goiz eta arratsaldean.

25 urteurren honen ospakizunerako bigarren ekitaldi nagusi bat antolatu du Baisaizeak, Nafarroaren Egunaren bezperan. Azken sei urte hauetan egiten aritu diren bezala, Musikaldia antolatuko dute. Parisiko Orkestra filarmnikoko musikari batzuek parte hartuko dute kontzertu honetan. Kontzertuan, beraz, musika klasikoko Mozart, Haendel, Woeber gisako konpositore handien obrak azaltzeaz gain, gaitaren errepertorioari lotuak diren doinuak ere eskainiko dituzte, hau da, Julian Romano edo Helena Frailerrenak.

## LANA

# Martxoan 636 langabetuk izena emana zuten INEMen

Martxo akabailan 636 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, otsailan baino 35 guttiagok. Nafarroan ere dexte beheiti egin du langabeziak, aitzineko hilabetean baino 1.162 lagun guttiago baitzeuden lanik gabe, 18.342 guzira. Urtririleko datu beldurgarrien ondotik, bi hilabeteotan zerbait hobera egin du egoerak.

Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 66 gizaseme eta 51 emakume eta 25 urtez goitiko 207 gizon eta 312 emakume zeuden langabezia martxoan. Beraz, sexu eta adin sektore guzietan somatu da langabeziaren beherakada, otsailarekin konparatuz. Sektoreka, zerbiztu arloan zeuden langabetu gehienak, 355 pertsona, nahiz eta otsailan baino 34 guttiago izan. Industrian 187 langabetu zeuden (4 guttiago), eraikuntzan 50 (2 gehiago) eta nekazaritzan 6 (1 gehiago), aitzinetik lanik egin gabeko 38 langabetuekin batera (otsaileko kopuru bera).

Otsailan 288 kontratu berri egin ziren eskualdean, baina horietatik 45 bertzerik ez ziren mugagabeak izan.

# ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



## BELARRA

OSTATUA  
JATETXEA

Amezti karrika  
DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06



## LEITZALDEA



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

Leitzako Guratz Mendi elkarteak afizionatu mailan errepideratuko duen Azpiroz Saralegi - Swell txirrindulari taldearen aurkezpena egin zen apirilaren 9an Leitzako Landa jatetxean. Luis Vicente Otin Leitzako profesional ohiak zuzenduko du aurten ere 22 txirrindulariko taldea, Nafarroako Itzulian eta-paren bat irabazteko helburuarekin. Horretarako indartu egin da taldea Kantabriako 7 txirrindularirekin, Errioxako bostekin eta James Scouldar ingelesarekin. 50.000 euroko aurrekontua izanen du taldeak. Aurkezpen ekitaldian Miguel Indurainez gain, Jon Bru (La Pecol), Juanma Garate (Lampre), eta Koldo Gil (Once) txirrindulari profesionalak, Oinatz Bengoetxea eta Asier Olaizola esku pilotariak, Gaztelu erremontelaria eta Inaxio Perurena eta Mikel Saralegi harrijasotzaileak izan ziren, besteen artean.

## Aralar Musika Eskolako akordeoi taldearen emanaldi berezia

Musikaren bidez «Errege berri bat» ipuina kontatu zuten apirilaren 12an Leitzan egindako kontzertuan

### tipi-ttapa

Aralar Musika Eskolako akordeolari taldeak Jose Tomas Porto Biguria irakasleak sortutako «Errege berri bat» ipuin musikala estreinatu zen apirilaren 12an Leitzako zineman egindako kontzertuan. 35 akordeolarien lanaz gain kontalari bat ere, Javier Irigoien eskolako zuzendaria hain zuzen, aritu zen testua irakurtzen.

Aralar Musika eskolako ikasleak ikasturte osoan aritu dira ipuin musikala hau lantzen, musikarekin ikasi eta jostatzeko helburuarekin. Lan horren emaitza erakutsi ahal izan zuten Leitzan, baina bertze he-



Jose Tomas Porto Biguria musika irakasleak sortu du akordeoiaren emanaldi berezia.

rritan ere eskainiko dute seguruenik emanaldia. Barañainen maia-

ztean joko dute seguruenik. Izan ere, Barañaingo Luis Morondo eskolako akordeoi ikasleak ere, inguru honetakoekin batera aritu dira entsaio eta kontzertuan.

Jose Tomas Porto egileak aipatu duenez, lana konposatzerakoan, «*akordeoi ikasle guziak protagonista sentitzea nuen helburu, bakoitza bere mailan, baina paper bat interpretatuz*». Beste aldetik, irakasleak akordeoiaen potentzialitatea erabili nahi izan du, «*musika-lan originala sortuz eta musika tresna honen baliabideak aprobetxatuz, beti ere behar duen duintasuna eman nahiean*».

## ARESO

## Guraso Elkarteek antolatutako Haur Olinpiada maiatzaren 10ean egingen da

Areson bilduko dira Leitzan, Goizueta eta Aresoko berrogeita hamar bat neska-mutiko

### Juana Mari SAIZAR

Apirilaren 7an Aresoko eskolan Leitzan eta Aresoko Guraso Elkarteak bildu ziren. Goizuetako Guraso Elkartearen adostasunarekin, Haur Olinpiaden egitaraua egin zuten.

Goizeko 11:30etan haurrentzako jokuak, Areso eta Goizuetako trikitilariekin kalejira eta ondoren, Aresoko dantzari txikiak ariko dira. Ordu batera aldera bazkaria izanen dute, bakoitzak berea eramanda. Antolatzaileek edariak jarriko dituzte. Beste urtetako olinpiadetan ateratako diapositiba emanaldia eskainiko da bazkal ondoren. Altxo-

rraren bila jokua egingen dute gero, herria eza gutuz. Bukatzeko karakea eta denentzat txokolatada izango da. Bukara. Bukaeran inguruko kirolariak sinatutako kamiseta batzuk zozketatuko dira. Areso, Goizueta eta Leitzako 50 bat ume biltzea espero da.

### Eluseder industrialdea

Eluseder industrialdeko plan partziala behin behinekoz onartu zen udal batzarrean. Orain hilabete batez egongo da jendaurrean ikusgai, nahi duenak alegazioak aurkeztu ahal izateko.



ARTXIBOKOA

Eluseder industrialdeko plana behin behinekoz onartu du Udalak. Orain ikusgai dago udaletxean, nahi duenak alegazioak aurkezteko.

## GOIZUETA

# Nerea Zabaleta irabazle Nafarroako kantu txapelketan

Jon Apezetxeak ere txapela eskuratu zuen Zizurko pilota txapelketan



**Esteban AROTZENA**  
Apirilaren 6an Iruñeko Gaiarren jokaturako Nafarroako haur kantari txapelketaren finaleko irabazleetako bat Nerea Zabaleta izan zen, 11 urteko neskato honek eskuratu baitzuen haur bakarlariren lehenengo saria. ①

**Irratsaioa**  
Bertan egindako irratia entzun zen herrian apirilaren lehen astean. Goizeko saioa eskolako umeez egiten zuten, eta arratsaldekoa berriz, Maider Ansa eta Iñigo Lujanbioren esku egoten zen. ②

**Korrika**  
Erantzun ederra jaso zuen apirilaren 5ean antolatutako Korrika herrikoiak. Egun bereko Egunkariaren aldeko barrikotean berriz, 200 lagun elkartu ziren pilotaplazan. ③

**Jon Apezetxea txapeladun**  
Jon Apezetxea suertatu zen irabazle Zizurko pilota txapelketan ere 15 urtekoen mailan Jon Narbarteren kontra jokatutako finalean. Ekaitz Narbartek berriz, partida ona jokatu arren, galdu egin zuen bere mailako finala.



UTZITAKO ARGAZKIA:  
Kapelogorriko bordara joan ziren eskolako neska-mutikoak aurtengo Zuhaitz Egunean. Eguraldia lagun inguru ederrak ikusteko eta gozatzeko aukera ere izan zuten gaztetxoek.



**zerbitzu gehiago herri gehiago**

Zure Udalak telefono bat eskaintzen dizu behar duzun guztia agudo eskuratzeko: orribideak, izopideen kudeaketa zuzena, leku eta irradokizunak.

Gero eta gehiago gara, informazio eta zerbitzu gehiagorekin. Nafarroako Gobernuak eta zenbat Udalek sustotutako ekimena da eta ourreri beste herri batzuek harekin bat egingo dute.

**TELEFONOA** zure zerbitzura ondoko udaletan:  
Altsasu, Antsoain, Agoitz, Aranguren, Barafain, Bers, Berriobeiti, Berriozar, Zizur, Egues, Lizarra, Uhartea, Los Arcos, Noain-Ekartzibar, Zangoza, Izarbeibar, Valtierra, Villafranca, Atarrabia, eta Zizur Nagusia.

**012 INFO-LOCAL**

Zure Udald telefonoan informazioa

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioako Departamentua



## LEITZA

# Iera Agirre eta Saioa Iraola Euskal Herriko txapeldun paleta-goman

Finalean Narbarteko Iriarte ahizpei irabazi zieten eta orain Nafarroako txapelketa jokatuko dute

Mikel ILLARREGI

Aurrera taldea eta Belate Federazioaren izenean Iera Agirre Iturriagak eta Saioa Iraola Urkiolak lortu dute 2003ko Euskal Herriko Kluben arteko Nesken Paleta Goma Txapelketako, kadete mailan, txapela buruan jartzea eta herrira ekartzea.

Lehenbizi, Belateko ligan parte hartu zuten eta garaile suertatu zi-

ren hartan ere. Ondoren, Euskal Herriko txapelketa jokatu zuten eta lau partida jokatu ondoren, finalean Nabarteko Iriarte ahizpak aurkari zituztela, 30-24 irabazi zuten.

15 urteko bi neska hauek eta Naiara Astibia leitzarra, beste bikote batean, partaide izanen dira laster, Etxarriin jokatu den Nafarroako txapelketan.

Hogeita hamarrera diren partidetan, gomazko punto horia duen pilota txuria erabiltzen dute. Astean bitan entrenatzen dute eta hasieran zail xamarra gertatzen bazen ere, «honez gero» ohituta daude eta gustora aritzen dira.

Lerro hauen bitartez, eskertu nahi dute, beraien entrenatzailea den Patxi Aranburu. Zorionak!



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Iera Agirre eta Saioa Iraola pozik, Euskal Herriko txapelekin.

## Kirolerako bitartekoak

Kiroldegiko muskulazio gela zuzentzen du Mieltxo Saralegik

M.I.

Kirola egiteko eta behar den bezala honetarako prestatzeko, norberaren ahalmena, gogo eta dedikazioaz gain, prestaketarako tokiak badirudi gero eta beharrezkoa gertatzen direla kiroldegiak. Herrian duela bederatzihilabete zabaldu zen gero eta jende gehiagok erabiltzen duena. Egun 320 bazkide daude. Hemen, aereobic-eko 6 talde, mantenimendurako taldea, karateko bi talde, eta beste hainbeste talde eta kirolaz gain,

muskulazioa deitzen den saioa ere egiten da. Honetan, monitore lanetan aritzen den Mieltxorekin hitz egin dugu eta "hasi bai, jende asko hasten da, baina gero honek, segitzea, eskatzen du". Orain, "eguraldi hobea goa somatzen denan, jende gutxiago izaten da, baina, gero iraila-urria aldean berriz gora egingen du"-gehitu du Mieltxok. Adin guztietatik hurbiltzen dira muskulazio-soinketa egitea. Bertaera, Aurrerako futbol taldea eta sokatira taldea



astero hurbiltzen dira. Hona etorri gero hobekuntza somatzen ote den galdetuta, "Hau ez da aspirina bezala, ongi lantzeko etorri egin behar da" erantzun du.

### Geroa kantari

Nafarroako Haur Kantari txapelketan, zazpi eta hamabost urte bitarteko 200 bat haurrek parte hartu zuten finalean. Txikien sailean,

taldetan, leitzarrak izan ziren garaile. Honako partaide hauek izan ziren; Karmen García, Erika Astibia, Jon Mutuberria, Ainhoa Urkiola, Mikel Oronoz, Nahia Barriola, Itziar Mutuberria, Lorea Zabaleta, Edurne Jauregi, Olatz Aldunzin, Aitana Zabaleta, Irati Olano, Ainara Saralegi, Estitxu Otermin, Ane Intxausti eta Olaia Zabaleta.

## FLASH

### Antzerki saioak

Hezkuntzako Euskara Departamentuak antolatutako sei gelek parte hartu dute antzerki prestaketa eta emanaldietan. Lagarren, bosgarren eta seigarren mailako gela guztiek obra edo antzeslan bana prestatu dute eta ondoren hainbat herritan eskeini. Azkeneko emanaldiak herrian izan dira apirilaren 14 eta 15ean. Aurretik Lizarra, Bera, Etxarri Aranatz, Betelu eta Altsasun izan dira. Hona hemen talde bakoitzak prestatu duen antzeslanaren izena: 4.A: Tibusarri sarjentoa; 4.B: Amona; 5.A: Amona Benidorrera; 5.B: Idazkariak txerria hil; 6.A: Serapio zaharraren abenturak; 6.B: Familia baten gora-beherak

## ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

# Bi eskoletako neska-mutikoeek Korrika txiki bana egin zuten apirilaren 4an

Kisulabe elkarteak bere kilometroa egin zuen Senperen

### Margari eta Koro

Korrika kontu ibili gara azken asteetan: gure herritik hurbilen pasatu dena Senperetik izan da, eta harat gan ziren apirilaren 5ean "Kisulabe" elkarteak eresia zuten beren 198. kilometroa kurrizera.

Bainan herrian ere Korrika horren seinale izan ginuen: apirilaren 4ean eskola bakoitxetatik korrika-txiki bana antolatu zituzten: Urdazubiko eskoletakoak Ledorlastik Urdazubiraino egin zuten lasterkaldia (2 kilometro, ez da batera gaizki); eta Zugarramurdikoek berriz (tikittoenak baitire) herri guztia kurritu zuten: eskola-plaza-Lapiztegia-Martinea-Sagardia-plaza-eskola, euskararen aldeko lasterkaldian.



ARTXIBOKOA

Duela bi urte ere eskoletako haurrek egin zuten euskararen aldeko Korrika.

### Pilota txapelketa

Urtero egiten den pilota txapelketa abian ja-

rri dute antolatzaileek. Izena ematekoa "Mari-

xan" ostatuan egin behar da, eta epea apirilaren 20a jarri da (Aste Sainduko igandea). Gizonetzkoentzat bi modalitate daude: paleta goma eta larruzkoa; emaztekiak berriz, gomaz bakarrik arituko dira. Partidak udan zehar egingen dira, larunbata eta igandetan, eta finalak abuztuaren 10ean (igandea) jokatu dira.

### Eskulan denda berria

Aste Sainduan denda berri bat ireki dakute herrian. Denda hau Iruingo-bordako Amaiak jarri du martxan eta behetiko karrikan dago, "Narkonea" etxean. Bertan "Tasta"ko zeramikak, burdinezko lanak eta zilarrezko bitxiak salduko dira.

**ARMUA**  
**Jatetxea**  
Zugarramurdiko karretera 3. Km  
© 948 599 131 - URDAZUBI

**gaztelu**  
**iturgintza**  
kalefakzioa  
saneamendua  
gasa  
© 948 510086 / 510156  
fax: 948 610856  
**LEITZA**

**MARTIKO, S.A.**  
**MARTIKO**  
**Abatekietan**  
**adituak eta arituak**  
© 948 625016 • Fax 948 625036  
Alkaiaga Industrialdea • BERA

**Maderas GOMEN**

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645



## BAZTAN

# Amaiurko monolitoan ospatu zuen Aberri Eguna Udalbiltzak

Nafarroako historiari buruzko solasaldia ere egin zen

## ttipi-ttapa

Apirilaren 20an Aberri Eguna antolatu zuen Udalbiltzak Amaurko monolitoan eta hainbat jende bildu zen. Honen inguruan, apirilaren 16an solasaldi kulturala egin zen Amaiurko Gaztelu Elkartearen, «Nafarroa osoa» izenburupean. Nafarroako historiari buruz aritu ziren solasean historialariak, Nafarroako erresuma zer izan zen, zer anto-

laketa zuen eta gisako gaiak. Euskal Herria kontzeptu kulturalaz eta Nafarroa: euskal estatuaz aritu ziren. Gainera, Nabarraide ekimena ere aurkeztu zen.

## 1.800 euroko dirulaguntza Xauli Gazte Elkarteri

Balleko Udalak, Gobernu Batzordearen bitartez 1.803,03 euroko dirulaguntza eman dio



ARGAZKIA: ARDATZA

Elizondon, martxoaren 24an egin zuten EHNEko emakume nekazarien bilerara. Bertan, gainera, Txileko Anamuri emakume nekazari eta indigenaz osatutako elkartearen 12 kide Nafarroako emakume nekazariekin izan ziren. Beñoña Etxandiren gasnategia eta Amaiurko Alemantonea baserria bisitatu zituzten. Apirilaren 3 eta 4an, Bizkaiko Karrantzan EHNEk antolatutako jardunaldi batzuetan parte hartu zuten Txileko emakume hauek.

Xauli Gazte Elkarteri eta udal fotokopiagailua erabiltzeko baimena ere eman dio. Erabakian ze-

hazten denez, gaztediarendako lan ona eta komenigarria egiten du elkarteak.

Virginia Aleman 31 urteko elizondarra izanena da EAko zerrendaburu udal hauteskudetan.

## HITZARMENA

## Kultur elkarlana egiteko hitzarmena sinatu zuten Baztango eta Baionako Udalek

Joan den apirilaren 5ean, Baztango Udala eta Baionako Udalaren arduradunek hitzarmena sinatu zuten Baionako Antzokian. Alde batetik, Baionako udalaren partez, Bernar Massé alkateordea izan zen. Bertetik, Baztango Udalaren partez Cristina Arregi, Hezkuntza, Euskera eta Kultura

zinegotziak, sinatu zuen akordioa.

Bertan, bi udal ordezkari hauekin batera, Dominique Burucoa (Scène Nationale de Bayonne et Sud-Aquitain delakoaren zuzendaria) Roger Goyeneche (Directeur de Action Culturelle) eta Jose Miguel Pérez (regidorea) izan ziren.



**LARRALDEA SAGAROTEGIA**

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKAROZ

© 948 452121

**ANTXITONEA Trinketea**

Jatetxea - Ostatua  
Hotela - Trinketea

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte  
ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853

**ANSONEA jatetxea**

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

**OSTATU - JATETXEA**

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**BAZTAN**

## Plan Estrategikoa ahobatez onartu zuen Balleko Udalak

2010. urtera bitarteko lan ildoak finkatzen ditu

**ttipi-ttapa**

Balleko Udalak ahobatez onartu zuen LKS kontsultorak prestatu eta idatzi duen 2003-2010erako Plan Estrategikoa. Gai hau aztertzeke osatu zen kontseiluak otsailean dagoeneko onartu zuen plana, baina orain udalak berretsi egin du erabaki hori. Txostenean, 130 ekimen proposamen aztertzen dira eta Patxi Oiarzabal alkatearen ustez, datozen udal korporazioek segitu beharreko lan ildoak finkatzen ditu. «Idatzi hau ez da arazo guzien soluzioa, baina non gauden eta norat gan behar den zehazten du, lehenetasuna duten gauzak finkatuz. Plan egozia da, baina seguruenik ez dira bertan aipatzen diren guztiak praktikan gauzatuko. Hori batzorde ezberdinen eta formula ezberdinen araberago gauzatu beharko

dira». Plana ahobatez onartu baldin bazen ere, zinegotzi guztiak ez zeuden konforme planean ageri diren ondorioekin. Batasunako Mikel Altzuart zinegotziaren ustez, «plana egitea gostatzen dirutza kontuan hartuz, ez da espero zena lortu». Dena den, plana egiten duten pertsonen jarrera egokia izan dela eta diagnostikoak eta helburu orokorrek bat egin dutela kontuan hartuz, talde honetako bi zinegotziek aldeko bozua eman zuten azkenean. Beraien ustez, maiatzean sortuko den udal korporazio berriak berriz ere berretsi egin beharko luke plana.

Aipatu bezala, plana egiten talde eta pertsona ezberdinek hartu dute parte batzorde orokorrean bilduta. Batzorde honek egindako proposamenak kontuan hartu dira testua idazterakoan.



ARGAZKIA: BAZTAN IKASTOLAK UTZIA

### Zuhaitz Eguna

Martxoaren 30ean Baztan Ikastolak, bertze urtetan bezala, zuhaitz eguna ospatu zuen 60 haritz landatuz. Goizeko 10:00etan parketik oinez atera ziren. Aitzurrak eta plantak Aitor basozainak bere furgonetan igo zituen landaketa egin zen lekuraino. 11:00etan zuhaitz landaketa hasi zen Aitorren agindua jarraituz. Akitzean nahi zutenak gosaritxo egiten gelditu ziren.

*Eskisaroi jatetxea*  
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
**ELIZONDO**

**BURKAITZEA**  
ostatu erretegia  
Zugarramurdiko bidea, 3 km.  
☎ 948 599280 • URDAZUBI

**asnap me**  
• GIZARTE ETA LAN ARLOA  
• KONTABLE-FISKALA  
• JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
  - Garraioak
  - Elektrizitatea
  - Eraikuntza
  - Igalnera...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZTIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asosiatamendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta atzerpenak

**DONOSTIA**  
Bos. Sarmiento, 4. Soldeko  
Telef. 948 451823 Telefax: 948 451438  
www.assnape.com

**ELIZONDO**  
Sarmiento, 51. Soldeko  
Telef. 948 580 584  
elzond@asnape.com

**BERGARA**  
Sarmiento, 7. Soldeko  
Telef. 948 561208 Telefax: 948 561848  
bergara@asnape.com

**ONASKA ERRETEGIA**  
Euskal sukaldaritza  
Arrain eta haragia brasan  
Bagordiko bidean • ELBETE  
☎ 948 45 20 88



## SENPERE

# Orma enpresako hirutan hogei langile langabezia teknikoan daude erearoa arte

Senpere pilotaren hiriburua izan da Open txapelketa ikusgarriarekin

## Franck DOLOSOR

Argentinan biltzen den txipiroia eskas delakoan, martxoaren lehenetik langabezia teknikoan dira Orma lantegian. Hirurogoi langile ez doatzi gehiago lanerats lehen gaia falta baita txipiroi izoztuak egiteko. Ormako zuzendaritzak dionaz, langile guztiak berriz lanean hasiko dira erearokan baina kezka handia da Lizardia lan zelaian, denek gogoan baitute duela urte batzuk Yplonek atek hetsi zituela herritar aintz langabezia utziz.

Txipiroi izoztu kopuru handia bada mementuan Orma lantegian eta hauekin hornitze dituzte beren bezeroak. Udatik aintzina lana izanen omen da berriz ere Orman banaketa haundiko lantegi batekin hitzarmen bat egin baitu horko nagusiak.

## Pilota Open txapelketa

Pilota hitzordu biziki

interesgarria iragan berri da Gantxikin. Open txapelketarekin pilotazaleek plazer handia izan dute herrian munduko jokalaririk onenak egon direlako zonalde egunez berinezko trinketean.

Hor, munduko txapeladunak, Beltran eta Santamariak, ezin izan dute deus egin Belascain eta Teilleriren kontra eta azkenean galdu dute 15/10- 15/10.

Gizon eta emazte gomazko paletan Argetinarrak izan dira irabazle, Miro eta Cimadamore nagusitu zaiotelakotz Euskal Herriko Iparraldeko Suzanne eta hennandorenari 15/12. 15/12. Schenitto-Stelle garaile ere Euskal Herri hegoaldeko Muneta eta Mendizabalen kontra: 15/14. 13/15. 10/9.

Larruzko paletan aldiiz hemengo Casamajor-Bergerot bikoteak irabazi du Argetinako Fusto-Roletelniren aurka 15/7. 15/12. Ikusizun ederra eman dute.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Aurtengo Opena ikusgarria izan da Gantxikin



**bentamiguel**  
dentsa, jantzia eta osasuna

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Talokak  
Likoreak  
Jantziak  
Unalategia

Ibardingoa Lepoa • © 948 631209

**ORDOKI LIKOREAK**  
ERRETEGIA

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak

ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE  
Hamahirugarren Korrika biziki jendetsua eta eguzkitsua izan zen Senpere. Sekulan ez zuen hainbertze jendek parte hartu AEKren aldeko lasterkaldian. Korrika Uzta-ritzetik etorri zen Azkainerat buruz eta hamar bat kilometrotan senpertarrek aski ongi eraman dute euskararen lekukoa.

## AZKAIN

# Hogeita hamahiru gaztek aste osoa iragan zuten Bollendorfen

Hamahiru elkarteren artean partekatu dira 8 kilometroak

### Ihintza, Angela eta Eneko

Anitasun elkarteak bere parioa irabazi du aurten. Bertze urteetan ez bezala, 12-18 urteko hogeita hamar bat gazte izan dira Alemanian eta Luxenburgon apirilaren 9tik 16erat. Erran behar zen korne-lioko musikariak eta lkasleak taldeko dantzarieluzatu zietela go-mita.

Egitaraua ongi beteazuten, eta 8 egunez gauza asko ikusi eta jende ainitz ezagutu zuten. Batzua familietan errezebituak izan ziren bainan gehienek gazte albergean iragan zituzten gauak. Beti bezala Treves hiria bisitatu zuten eta inguruetako oihan eta mendixketan egin zituzten ibilaldiak. Bollendorfeko auzapezarekin elkartu ziren eta tokiko gazteekin besta egin zu-

ten Zak gaztetxean. Futbol lehiaketan ere parte hartu zuten. Eta noiztenka musika kontzertu eta dantza ikusgarriak eskaini zituzten.

### Aldudarrak Bideo elkarteak ikastaldia

3 eguneko bideo ikastaldia eskainiko du Aldudarrak Bideo elkarteak Jauregian. Bideo sekuentziak filmatzen eta muntatzen ikasten ahalko da egun horietan. 12 toki baizik ez dira eta izena eman behar da aintzinetik ( 06 71 71 41 93). 30 euro eta eguerdiko bazkaria ekarri beharko dira.

### Korrika aro ederrarekin

Korrikaren arrakasta herrian ere nabaritu zen apirilaren 5an. Tenore onean eta aro ederra-



Bollendorfera joan zen gazte taldea.

ARGAZKIA: ANGELA JORAJURIA

rekin jende ainitzek parte hartu zuen lasterketan. 13 elkarte agertu ziren egun hartan lekukoa eramaiteko. Eta Euskal Herriko Kazetako lehen orrialdean Azkaindar neska gazte bat agertu zen argazkitan lekukoa eskutan.

### Altxalili eta Gemuku Ttipi-ttaparen laguntzaile

Ttipi-ttapak harpidetza kanpaina burutuko duelakoan laster, Azkaingo berriemaileek jakinarazten dizue aurten aldizkaria errezebitzeko hautua hemendatu dela. Harretxe eta Susperregui okinek aleak banatuko dituzte oraitik aitzina ogiarekin batera. Bertzaldetik La Pos-



### Korrikaren aldeko moda desfilea

Gaueskolak moda desfilea antolatu zuen Bil Tokin Martxoaren 28an. 20 bat ikaslek korrikako jantzi berriak aurkeztu zizkieten publikoari. Erakasleek ere parte hartu zuten ekitaldian.

tekin banatuak izanen dira geldituko direnak Altxalili eta Gemukuren diru laguntzari esker. Horri esker espero dugu nehorik ez duela gehiago Ttipi-Ttapa be-

rantarekin errezebituko. Harpidetza 30 eurotan eginen da.

Xehetasun gehiagorentzat telefono huntara dei dezakezue: Eneko 06 71 71 41 93.




SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta**  
**Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550




**SALMENTA**

**MARKA GUZIEN KONPONKETA**

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA  
(Sarrera Beratik)



SARA

# Euskal Herriko Idazleen XX. Biltzarra bazko astelehenez iragan da kiroldegian

Herriko errugbi taldeak Azkainen kontra jokatu du finalerdia

## Joana eta Saski

Apirilaren 21ean, Bazko Astelehenez, Euskal Idazleen hogeigarren biltzarrak 140 bat idazle bildu ditu Sarako kiroldegian, urtero bezala haien obrak presentatzeko.

Euskaraz, frantsesez eta espainolez idatzitako liburuak izan dira, bai eta bideoak, diskak, elkarteak, argitaletxeak, prentsa...

Besteak beste, Sarako Biltzarraren urratsak 20 urtez ikusi ahal izan ziren erakusketa bati esker. Goizeko 9:30ak aldera ideki zen biltzarra eta 11:00etan Eusko Ikaskuntzako bekak eman ziren. Egurditan, gurekin gehiago ez direnei omenaldia egin zitzaion eta biltzarraren orroitzapen batzuk banatu ziren, hogeigarren urtemuga kari. Ondotik zintzur busitzea egin zen. Arratsaldean ere izan zen ekitaldirik. 17:00etan «Bihotz bakartien kluba» taldeak ikuskizun



ARGAZKIA: ARTXIBOKOA

Urtero bezala, idazle eta irakurzaile ainitz bildu da Euskal Herriko Idazleen Biltzarrean.

poetiko bateskaini zuen, euskaraz.

## Plekako pala txapelketaren finalak larunbatean

Aurten trinketeko pala txapelketaren finalak apirilaren 26an, larunbatekin, iraganen dira. Goizeko 9:00etan hasiko dira hirugarren mai-

lakoak, egurditan bukatuz maila gorenekoekin. Gero, aperitifa eta pintxoak izanen dira Plekak eskainirik eta ondotik bazkaria. Izenak apirilaren 18a aitzin eman behar ziren.

## Euskal presoak Euskal Herrira!

Hilabete huntan presoen aldeko elkarreta-

ratzea apirilaren 25ean iraganen da, ostiralarekin, 19:30etan. Eta ez ahantzi, hilabete guziz, azken ostiraletan iragaiten dela!

## Errugbi taldeak galdu

Apirilaren 6an, igandearekin, final erdiko lehen fasea jokatu zuten Sarako errugbilariek,

Azkaineko ekiparen kontra. Maleruski, 17 eta 9 galdu dute, behar bada momentu huntan kolpatu ainitz badelakotz ekipan. Ea animatzen diren bigarren fasearen jokatzeke heldu den igandean! Agian, sarratar ainitz hurbilduko da errugbi zelaira gure mutikoak sustengatzeko. Aupa Sara!



## EZKONTZAK

**Itziar Goñi Etxeberria** eta **Alejandro Zelaieta Urrutia**, Oitz eta Elizondokoa, martxoaren 22an.

**Ramon Iglesias Iturriotz** eta **Belinda Linares Vaquero**, Ibarra eta Lesakakoa, martxoaren 29an.

**Jesus Maria Zabala Gonzalez** eta **Maria Aranzazu Sarasola Sanz**, Doneztebekoak, martxoaren 29an.

**Angel Maria Iribarren Irisarri** eta **Amaia Juanikorena Sanstesteban**, Doneztebe eta Zubietakoa, apirilaren 5ean.



## SORTZEAK

**Leire Sagastibeltza Zabaleta**, Leitzakoa, martxoaren 30ean.

**Abdesamad El Haou Lhissen**, Narbartekoa, martxoaren 20an.

**Joseba Juanotena Ezkurra**, Doneztebekoa, apirilaren 1ean.

**Jon Bidaur Mitxelena**, Igantzikoa, martxoaren 7an.



## HERIOTZAK

**Victoriano Zelaieta Migelena**, Igantzikoa, martxoaren 28an, 75 urte.

**Melchor Larretxea Ordoki**, Berakoa, apirilaren 1ean, 52 urte.

**David Morrás Lopez de Goikoetxea**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 3an.

**Maria Angeles Samaniego Pijuan**, Elizondon, apirilaren 1ean, 83 urte.

**Juan Arnis Iriarte**, Berroetakoa, apirilaren 2an, 81 urte.

**Feliciana Ariztegi Goñi**, Oizkoa, martxoaren 8an, 70 urte.

**Juan Batista Amestoy**, Sarakoa, 77 urte.

**Benjamin Remy Albert Robin**, Sarakoa, 12 urte.

**Mathieu Guilsou**, Sarakoa, 55 urte.

**Juan Jose Beristain**, Sarakoa, 81 urte.



**Eskela eta eskertzak**  
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapara** igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



**Txomin IANTZI AMORENA**  
I. URTEMUGA (2002-IV-17)

*Hesia urraturik  
libratu huen kanta  
lotura guztietatik  
gorputzaren mugetatik  
aske sentitu nahirik.*

**HIRE FAMILIA**

*Haren alde egin diren ekitaldiak  
aunitz eskertzen ditu familiak.*



**TANATORIO  
BAZTANDARRA**

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,  
Urdazubi eta  
Zugarramurdin

24 orduko zerbitzua  
tanatorioan eta etxean  
prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704





ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

**Ezker eskuin, Agurtzane Obregozo, Begoña Iriarte eta Maria Mendiburu** baztandarrak, Nafarroako errugbi selekzioarekin partida aritu baino lehen.

#### Aitor AROTZENA

Emakumeen errugbian talde bakarra dago Nafarroan, Unibertsitate Publikoarena. Beraz, selekzioa eta taldea bat direla erraten ahal da. Horrela, ez da harritzekoa errugbian aritzen hilabete terdi bertzerik ez duten Begoña Iriarte eta Maria Mendiburu baztandarrak selekzioarekin aritzea 20 urterekin. Baztango hirukote honetan beterranoena Agurtzane Obregozo da, 23 urterekin. Lau bat urte daramazki errugbian eta Espainiako selekzioarekin ere aritu zen Irlandan, bertan ingelera ikasten duela aprobetxatuz. Nafarroako selekzioarekin aritzeko bidaia ere ordaindu dio Federazioak. Apirilaren 5ean bi partida jokatu zituen

Nafarroako selekzioak Lekarozen eta biak galdu egin zituen: 21-0 Madrilen kontra eta 23-0 Katalunyanen kontra, baina kontuan hartu behar da Madril txapel-dun izan zela, Euskadiko selekzioaren aitzinetik. Nafarroak Galizari irabazi zion biharamonean eta bosgarren izan zen sailkapen orokorrean.

Maria Mendiburu elizondarrak aipatu digunez, denboraldi haseran Baztanen taldea sortzen saiatu ziren: «Gan den urteko irailean entrenatzeko deialdia egin genuen. Hasieran ongi, 12-13 bat lagun biltzen ginen,

# «Kirol zakarra iduri du errugbiak baina futbolean aisa lesio gehiago gertatzen dira»

- Apirileko lehen aste hondarrean jokatu zen emakumezkoen errugbi txapelketa. Partida batzuk Lekarozko zelaian jokatu ziren.
- Nafarroako selekzioarekin parte hartu zuten Agurtzane Obregozo lekaroztarrak, Begoña Iriarte iruritarrak eta Maria Mendiburu elizondarrak. Nafarroa bosgarren izan zen.
- Joan den urteko irailean Baztanen taldea sortzeko zenbait entrenamendu egin ziren, baina azkenean ez zen talderik osatu.

*baina gero eta gutiago, jendea hasi zen desanimatzen... ez zen aitzinera ateri eta unibertsitatean segitzea pentsatu nuen. Entrenamendu pare batera gan, engantxatzen zara eta ezin duzu utzi».*

Errugbiak kirol zakarren irudia uzten dio ezagutzen ez duenari eta horregatik errugbian aritzen direla erraten dutenean, harridura begiradak eta komentarioak aditzen dituzte. «Kanpotik egitan dena baino gogorragoa ematen du –dio Mariak–, baina futboleko baina lesio gutiago izaten dira. Posturak ongi hartzen baldin badituzu eta nola jo behar duzun ikasten baduzu, ez duzu zergatik minik hartu behar. Kolpeak

*hartzen ahal dituzu, baina ez da horrenbertzerako! Praktikak erakusten du». Errugbi partiden ondotik, bi taldeek elkarrekin egiten duten «hirugarren zatia» ere famatua da. Mariak aipatu digunez, «giro ona izaten da talde barnean, baina baita bertze taldeekin ere. Txapelketako partidak akitu zirenean bazkaria egin zuten talde guziek elkarrekin».*

Lekarozen selekzioarekin aritzeko aukera izateak ilusioa egin zien baztandar hauei, «nahiz eta maila horretako partidak izateko, jende sobera ez hurbildu». Berriz ere, Baztango taldea sortzeko animoak bildu dituzte, Mariak erran digunez: «Agurtzane Irlandatik bueltatzen delarik berriz ere saiatuko gara... Orduan dexente desanimatu ginen, zaila iruditzen zait, baina ahal den propagandarik handiena eginen dugu oraingoan».

**«Errugbian ez da bertze kiroletan izaten ahal den kompetibitatea. Talde barnean guziak dira garrantzitsuak, denen koordinaketa behar delakoz»**

LAXOA

## Baztan-Errekako XXIV. txapelketa hameka taldek hasi dute

Finala abuztuaren 3an jokatu da Irurritako plazan

A.A.

Laxoa Elkartek Baztan-Errekako laxoa txapelketaren aurkezpena egin zuen apirilaren 8an Irurritako Olari jatetxean. Laxoa Elkarteko Tiburtzio Arraztoa eta Josu Prim, Alberto San Miguel Oizko alkatea eta Maribel San Jose Irurritako alkata izan ziren aurkezpen ekitaldian. Aurtengoan hogeitalaugarren edizioa beteko du laxoa txapelketa eta hameka taldek hartuko dute parte, bi multzotan banatuak: Doneztebe eta Iruritatik hiruna, Arraioz eta Oiztik bina eta Elizondokoa.

Tiburtzio Arraztoak txapelketaren egitura zehaztu zuen. Multzo bakoitzeko lau lehen-dabiziko taldeak sartuko dira bigarren fasean. Final laurdenak uztaillaren 6an eta 13an jokatu dira, erdifinalak uz-



Argazkia: Aitor  
Josu Prim, Alberto San Miguel, Maribel San Jose eta Tiburtzio Arraztoa, Baztan-Errekako XXIV. laxoa txapelketaren aurkezpenean.

tailaren 20 eta 27an eta finala abuztuaren 3an Irurritan jokatu dela jakinarazi zuen. Lehen-dabiziko jardunaldia apirilaren 13an jokatu zen Txapelketa nagusia akitu bezain laster, Baztan-Errekako gazte txapelketa jokatu da. Ne-

gu aldera, plaza libretik frontoietara bilduko dira pilotariak, bosgarren paxaka txapelketa jokatu baita azarotik martxora. Laxoa elkarteko kideak pozik ageri dira modalitate hau berreskuratzegatik. Heldu den urtean,

Hondarribiako talderen batek laxoa txapelketan parte har dezakeela jakinarazi zuten aurkezpenean. Baztan-Malerreka eta Hondarribiaren arteko herrietan ere, Bortzirietan alegia, talderen bat ateratzeko animoak eman zituzten.

FLASH


### Narbarte txapeldun Herri Kirol Jolasetan

Narbartek, kadete mailako sokatiran eskuratu zuen eskualderako txapel bakarra Nafarroako herri kirol jolasetan. Ligaxka moduan jokatu zen sokatira txapelketa eta Bertizaranakoek txapela segurtatua zuten Arbizuko azken saioaren aitzinetik. Izan ere, lehendabiziko hiru saioetan irabazle izan ziren eta laugarren saioan bigarren izan ziren Andra Mariren gibeletik eta Berriozar eta Iñigo Aritzari irabazita, baina txapela Narbartera ekarri zuten. Beraz, erran beharrik ez da, pozez txoratzen zeudela Mitxel Aginaga kirolariak prestatzen dituen neska-mutikoak. Proba konbinatuan, kadete mailan laugarren izan ziren Narbartekoak eta bigarren Arantza. Hasierako faseko saio guzietan gailendu ondotik, gehixago espero zuten aranzarrek kategorija honean, baina ez zen posible izan. Haur mailako proba konbinatuan hirugarren izan zen Arantzako taldea.

## Pilota Joku luzeko II. Topaketa apirilaren 22tik 26ra Valentzian

Apirilaren 22tik 26ra Valentzian egiten ar den Pilota Joku zuzeneko bigarren topaketan parte hartzen ari dira Laxoa Elkarteko pilotari, kide eta udaletako ordezkariak ofizial batek. Folklore eta kultura uztartu nahi dituzte, valentziar eta euskal joku zuzenak praktikatu bidenabar, Josu Prim jakinarazi zuenez. «Guri iruditzen zaigu pilota gurea dela, baina bertze herrialdeetan ere bada. Valentziako Genoves herrian, adibidez,

pilotaren museoa dute. Gainera, herri ttikia izanik ere, bi kirol zinegotzi dituzte, bat kirola orokorrean lantzen duena eta bertzea berezia pilota valentziarrarendako». Valentzian neska-mutikoekin topaketa egiten dute, hemengo laxoa eta paxaka edo hango escala i corda edo galocha jokatu. «Valentziatik Alicantera ganen gara, han eskuz luzean jokatzeko dute, hau da, laxoan bezala baina eskularrurik gabe. Interesgarria da».



ARGAZKIA: AITOR  
Pilota valentziarraren eta paxakaren arteko ezberdintasun nagusia piloten tamainan dago, argazkian ageri den bezala.



# AGENDA

egunez  
egun

## MENDI IBILADIAK

### BAZTAN

**Apirilaren 27an** Baigorriara ateraldia egingen du Baztango Mendigoizaleak taldeak, Nafarroaren Egunaren kariatara.

**Apirilaren 13an** Hondarribiara.

### LEITZA

**Apirilaren 28an** Mandoegiko parke eolikoaren kontra. 9etan Urton.

## LANGILEEN EGUNA

### DONEZTEBE

**Maiatzaren 1ean** besta eguna antolatu du UGTk. Egun osoan haur jolasak izanen dira. 11:00etan ekitaldi sindikala. 12:00etan herri kirolaren erakusketa. 14:00etan bazkaria akordeoilariekin. 16:30etan dantzaldia orkestrarekin. 19:00etan festa amaiera.

## BILERAK

### ARANTZA

**Apirilaren 28an** Euskaldunon Egunkaria eta proiektu berriari buruzko informazioa emanen da 18:00etan Herriko Etxean egingen den bileran.

## DEIALDIAK

### LESAKA

**Apirilaren 26an** Gazte Olinpiadak. Goizez aitxorraren bila eta paella egitea. Bazkal ondoren proba konbinatua.

### ARESO

**Maiatzaren 10ean** Areso, Leitza eta Goizuetako Guraso elkarteek antolatutako haur olinpiada. Xehetasunak 18. orrian.

## KINTO BAZKARIAK

### LESAKA

**Apirilaren 26an** 1969-70-71 urteetan sortutako kintoen bazkaria Irubide jatetxean.

## TELEBISTAKO TXOKOA



## BERAKO HISTORIA BIDEOAN

# «Aztarnen Hatsa» antzerkiari buruzko bideoa salgai

Martxoaren 23an arrakasta handiz iragan zen «Aztarnen hatsa» antzezlana Berako karraketan barna. Ricardo Baroja ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuta, Berako historiaren zenbait pasarte garrantzitsu antzeztu ziren eta zientoka lagun bildu zen antzezlana ikustera, eguraldi ederra lagun zutela. Aktore, musikari, kantari eta dantzarien artean, jende aunitzek parte hartu zuen: Mairu, Zazpi Kato, Antzeko Parezido eta Emaizta antzerki taldeetako hainbat aktorek, Berako koralak, dantzariak, musika eskolakoak eta orokorrean kultur arloan Beran ibiltzen diren talde guzietan. Ikuskizun bikain

hori ordu bateko bideoan bildu du TTIPI-TTAPA TELEBISTAK eta dagoneko 15 eurotan salgai dago. Ohiko lekuetan enkargatu behar da eta denbora guttitan eskura izanen da bideoa.

### KIROL TALDEAK DENBORALDIKO AZKEN TXANPAN

Bertzalde, eskualdeko kirol talde ezberdinak denboraldi bukaerara hurbiltzen ari dira. Batzuk akautu dute dagoeneko bere lana eta bertze batzuk akautzeko puntuan daude. Denboraldi honek utzi digunaren balantzea egingen dugu datozen asteetan «Jokoa Solas» kirol saioan, protagonisten eskutik.

## DISKAK



«Bizipen gose»

### TRIKI TA KE

ELKAR, 2003

Musika, gaztearen eguneroko medio naturala dugu, berezkoa, ulergarria, eroso. Musika inguraturik hausnartzen dituhobekien bere sentimendu nahasioketa, inozentziaren adina abandonatzeko trantze korapilatsuan, musikak babesa ez ezik kemena ere eskaintzen dio. Triki ta ke taldea adin horretaz jaioa da eta bere musikak korapiloa askatzen laguntzen du. Bere lehen diskoak pil-pilean zegoen talde herrikoia erreperitorioa zekarkigun, sentimenduz eta alaitasunez betea. «Bizipengose» taldearen bigarren diskoa duzu, non aurreko diskoaren ezaugarriez gain, erromerietan etengabe ibilitako bi urteren etorria eta abesti zein sentipen sorta zaindu bat aurkituko ditugun. Lan honetan berriro ere bustitzen du bere antzezlana, dantzaren izerdiaz larrua eta bizitzaren ilusioaz gogoia.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Martxoaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 21,00 €

**Zerri gizona**  
0,948 € kiloa.

**Zerramak:**  
0,46 € kiloa, bizirik.

### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,31  
**1.koa** 3,19  
**2.koa** 3,10  
**Urruxak:** Pta/kg. Kanal  
**Extra** 3,37  
**1.koa** 3,25  
**2.koa** 3,14

**Oharra:** Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.  
**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Mestizoak:** urruxak 265,00 € eta idixkoak 255,00 €

**Nabarrak:** urruxak 206,00 € eta idixkoak 182,00 €.  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,79/2,95  
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kiloak: 5,25/5,55  
8-10 kiloak: 4,30/4,65

## AGENDA egunez egun

### JAKIN BEHARREKOAK

# Informazio telefono berriak

Azken urteetan 1003 telefonora deitu behar zen Nafarroan telefono zenbaki baten berri jakiteko. Telefonicak eskaintzen zuen zerbitzu hau aldatu egin da apirilaren 4tik aitzinera, baita deitu beharreko zenbakiak ere. 1003a desagertu egin da, baina trukean hamasei telefono zenbaki badira, telefono zenbaki bat lortzeko orain arte bezala, baina baita posta elektronikoko helbidea edo sakeleko telefonoen berri jakiteko ere. Guziek bortz zifra dituzte eta 118rekin hasten dira. Guzietan edozein telefonia operatzaile erabiltzen duen abonatuaren edozein telefono zenbaki eskatu ahal izanen da. Erabiltzaileak eskaintzen dizkioten zerbitzuen

eta deiaren prezioaren arabera aukeratu beharko du. Hamasei telefono zenbaki hauek zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzte. Orain arteko Telefonicaren 1003a ordezkatu duena 11818a da eta orain arte bezala, erabiltzaile guzientzat prezio finkoa du, 35 xentimo. Honetaz gain, Telefonicak bertze hiru telefono eskaintzen ditu, baina Retevision, Jazz Telecom, Airtel eta bertze hainbat enpresek ere badituzte bereak. Telefonicak, 11825ean nazioarteko informazioa eskaintzen du, oraingo 1025ean bezalaxe; 11822an balio erantsiko zerbitzuak eskainiko ditu eta 11888an orrialde horien zerbitzua eskainiko da. Azken hone-



**11818 zenbakiak ordezkatu du orain arte Telefonicak informazioarako erabiltzen zuen 1003a.**

tako lokalizazio zerbitzuaren bitartez, hurbilen duzun jatetxe, farmazia, albaitari edo diskoteka non duzun eta bere telefonoaren berri emanen dizute, bertzeak bertze. Telefono zenbaki honetara egiten diren deiak garestixeagoak izanen dira. Telefonicak bertze operadorekin trukatu beharko du informazioa. Honela, tenpre-

sa guziek telefono finko nahiz mugikor guzietan informazioa ematen ahal dute. Hori bai, sakeleko telefonoa dutenek eurek eskatu beharko dute beraien zenbakia zerrenda horretan sartzea. Telefono finkoa dutenek, alderantzizko bidea egin behar dute, hau da, zerrenda horretan agertuko dira kontrakoa eskatzen ez badute.

### OSPAKIZUNAK

#### BAIGORRI

**Apirilaren 26 eta 27an** Nafarroaren Eguna ospatuko da. Aurten 25. urteurrena betetzen denez, ekitaldi bereziak izanen dira. Larunbatean euskal musika tradizionala eta musika klasikoa elkartuko dira kontzertu batean. Igande goizean sei merindadeetako dantzarien emanaldia. Karrka ibilaldiaren ondotik, eguerdian bazkaria. Arratsaldean pilota partida eta musika emanaldiak. Eskulan erakusketa eta Ezpela, Space Banako, Kuxkuxtu eta Elektrotuna txarangak ere ariko dira.

#### BAZTAN

**Maiatzaren 4ean** «12 Ordu eskuaraz» ospatuko da.

### EMANALDIAK

#### BERA

**Apirilaren 25ean, 20:30etan** «Idazle mugalariaren orrazibonbak» emanaldia 20:30etan Zizka Ostatuan. Urtzi Urrutikoetxea, Castillo Suarez, Edu Zelaieta eta Martin Etxeberria idazleen parte hartzea, zuzeneko musika, Antzeko Parezido gazteen antzerki taldea.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### 112 TFNORA. DEITU

#### Apirilaren 21etik 27ra

Bera (A. Lasarte), Doneztebe (A. Mendia), Elizondo (F. Garcia Mata), Mugairi eta Goizueta.

#### Ap. 28tik maiatzaren 4ra

Bera (A. Fernandez), Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Urdazubi, Leitza (A. Gimeno) eta Goizueta.

#### Maiatzaren 5etik 11ra

Etxalar, Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga) eta Goizueta.

**BERAKO KULTUR BATZORDEA**

**LIBURUAREN EGUNA**

*Idazle mugalariaren orrazibonbak*

**Noiz:** Apirilaren 25a, ortzirala.

**Orduetarik:** 20:30etan

**Lekua:** Zizkan

Urtzi Urrutikoetxea, Castillo Suarez, Edu Zelaieta eta Martin Etxeberria idazleen parte hartzea, zuzeneko musika, Antzeko Parezido gazteen antzerki taldea.



Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu.

ARANTZA. Herrian bertan, 2 pisuko etxea salgai. ☎ 948 637 040

### BULDAIN IRUÑA

Errotxapeako bulevarrean 75 pisu berri salgai. Logela 1, 2 eta 3koak. Garaje plaza eta trasteroekin. Kalitate handikoak. Udaletxetik oinez 10 minutura. Informazioa eskatu.

☎ 649 476 615  
☎ 948 510 534 bulegoa

ARIZKUN. Pisu mobleztatuak salgai. Trastero eta garajearekin. Sartzeko moduan. Egoera onean. ☎ 639 012 085

### BULDAIN LEITZAN

Manuel Lasarte Kalean garaje berriak salgai.

☎ 649 476 615  
☎ 948 510 534 bulegoa

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrikan pisua salgai. ☎ 667 418 661

LEKUNBERRI. Etxea 700 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai. ☎ 948 510299.

### ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.
- Edozein herritan badugu zerbitu.
- Leiza: lurra eta pisuak erosten dira.

948 451 841 / 607 978 656

### ADOS

- Donezleben obra berriak. Santa Luzia plazan azken 2 apartamentu eta lokal komertzialak salgai.
- Osasun Zentru ondoan pisu berriak salgai.
- Aparan inguruan pisu berriak eta azkeneko 3 partzela eraikigarriak salgai.

948 451 841

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan eman

BERA. Pisu ederra eta nahiko berria errentan emateko da. 100m<sup>2</sup>koa. Herriaren kanpoaldean, herrigunetik 500metrotara. Kalefakzioa-ekin. ☎ 616 244 210

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

DONOSTIA inguruan etxe lasaia errentan hartuko nuke. ☎ 645 706 751.

BERA. Pisubaterrentan hartuko genuke. ☎ 626852937.

### ETXEBIZITZAK

#### 106 Bertzelakoak

BERA. Pisua konpartituko nuke pertsona batekin zein birekin. Gaztea bazara eta elkarbizitza gustoko baduzu dei ezazu. ☎ 948 631188 (Nerea)

### GARAJE/LOKALAK 107 Salgai

ELIZONDO. Santiago kalean 200m<sup>2</sup>tako bajera salgai. Zentrikoa. ☎ 607 978 656

### GARAJE/LOKALAK 107 Errentan eman

BERA. Pisua ederra eta nahiko berria errentan emateko. 100m<sup>2</sup>koa. Herriaren kanpoaldean, herritik 500 metrora. Kalefakzioa. ☎ 616 244 210

### LANA 301 Eskaria

Emakume batek etxeko lanak egin edo jatetxe batean ontziak garbitzen lan eginen luke. ☎ 626 852937.

Emakume batek etxeko lanak egin edo jatetxe batean ontziak garbitzen lan eginen luke. ☎ 661 383 292

Emakume batek etxeko lanak egin, zaharrak eta umeak zaintzen edo jatetxe ba-

tean ontziak garbitzen lan eginen luke. ☎ 678 265 413 - 627 762 200

### LANA 302 Eskaintzak

Liburutegi laguntzailea 50 lanpostu Nafarroko Gobernuan. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Osasunbidea lanpostu deialdia. Erizain laguntzaileak (98), ATS-ak (84), zelariak (36), Zaindariak (26), laborategiko teknikariak (16), gizarte langileak (9). Adoz. ☎ 948 199 596

### Nafarroako Foruzaingoa.

50 lanpostu Nafarroako Gobernuak eskainiak. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

### Administrari laguntzaileak.

53 lanpostu Nafarroako Gobernuak eskainiak. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

### Garraiolari baimena Nafarroako Gobernuak gaitze titulua ateratzeko deialdia atez du.

Adoz ☎ 948 199 596

### Gidariak. Nafarroako Go-



## BAZTANgo UDALA

Sukaldean erabilitako olioien bilketa egunak

### 2003ko apirilaren 24an

Lekaroz	09:00-09:30	Karriketan barna
Gartzain	09:40-10:00	Karriketan barna
Irurita	10:10-11:00	Karriketan barna
Ziga	11:15-11:35	Karriketan barna
Aniz	11:40-12:00	Karriketan barna
Berroeta	12:10-12:40	Karriketan barna
Almandoz	12:50-13:20	Karriketan barna
Ornoz	13:30-14:00	Karriketan barna
Arraioz	14:10-14:30	Karriketan barna

☎ 948 580 006 • Baztango Udala



### BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioien bilketa egunak

### 2003ko maiatzaren 8an

Lesaka . . . . . 9etatik 12etara  
Igantzi . . . . . 13:00etan  
Arantza . . . . . 14:00ak arte

☎ 948 635 254 - Etxalar

bernuak 12 lanpostu eskaintzen ditu. Eskola graduatua. Egizu lan funtzionario moduan: lorezain, atezain... Adoz ☎ 948 199 596

**Basozaina.** Nafarroako Gobernuak 7 lanpostu eskaintzen ditu. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

**Autoeskolako irakasle.** Lan baldintza ezin hobekak, presertatu eta lan egin. Langabeziarikgabe. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

**Udaltzaina.** Lortu udal-lanpostua. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

**Justizia.** Laguntzaile ofiziale do agente. Udal epaitegietan lan egiteko. Deialdiak laster aterako dira. Adoz: ☎ 948 199 596

**ETXALAR.** Zerbitzari bat behar da jatetxean lan egiteko. ☎ 948 635 450.

**Leitzaldeko** enpresa batek **kamiolari** behar du. ☎ 619 829289 (Cederna-Garalur).

**Arginedo peoi** bat behar da. Malerreka aldean lan egiteko. ☎ 948 451 843 (gaueko 9tik aintzin).

**Behobiako merkataritza gunean** zerbitzari bat behar da. ☎ 629 472 589

**Azpeitia.** Neska bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, astelehenetik

**MENDAUR MOTOR**  
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**  
Terrano 3-5 atekoak, Renault Laguna, Clio D  
Montero 3 atekoa, Renault 19 D, Opel  
Combo, Seat Marbella, CX 2000 16v,  
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**BOAN TAILERRA**  
CITROEN Banatzailea

**AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA**

☎ 948 63 06 23 • BERA

**ARANTZA ZYRGINDEGIa**  
Jose Miquel Errandonea

**Klase guztietako zurgin lanak**

Osifia zuzua ☎ 948-634068 • ARANTZA

**GANIX Tailerrak**  
Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

**IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA FIAT Zerbitzua**

ostiralera, interna modura. Urteko 14 ordain, Segurutasun Soziala eta hilabeteko oporrak. ☎ 600 767 075.

**MOTORRA 501 Salerosketak**

**1997ko Fiat Bravo HGT2.0 20v 147cv gorria salgai.** 78.000km. Llanta eta faldoekin. ASD. Pioneer musika ekipoa. Egoera onean. ☎ 606 280 895

**Seat Inca 1400 salgai.** Xuria eta 34.000 kmrekin. ☎ 659 862 417

**Moto Onda CR 125cv 1995.urtekoa salgai.** ☎ 0034 609 434 650

**Fiat 1 Turbo 1.4 118cv salgai.** Ruedak eta konni berriak. 9.000km. Berri berria dago. 1900 € ☎ 645 950771

**Opel Corsarako OSEIK racing 15"ko llantak salgai.** 195-50-15 kubiartekin. ☎ 948 450 571

**Crisler Voyager salgai.** NA 3872 AK. Egoera onean. ☎ 619 733 867

**ANIMALIAK 602 Salgai**

**2 ahari salgai.** ☎ 948 634 170

**Aker ñañoak salgai.** ☎ 679 419 321 (arratsaldeko 5etatik aintzin)

**Behorra salgai,** paseoan ibiltzekoa. ☎ 689 042598.

**DENETARIK 701 Galdu-aurkituak**

**ARANTZA.** Argazki makina galdu da Oiaragarabideko borda eta Ibiltza tontorra artean. ☎ 943 791596.

**BERAko industrialean** giltza batzuk galdu ditut. 10-12 giltza zituen giltzarian. Aurkitzen dituenak saria izanen du. ☎ 948 635 166 - 689 702 891

**DENETARIK 702 Salerosketak**

**Musika ekipoa salgai.** 2000w, etapa eta kableekin. Egoera oso onean. ☎ 64983 99 22

**Mostradorea eta estanteria**

**IGANTZIKO UDALA**

**ONDASUNEN DESJABETZAPENA**

2003ko otsailaren 6an egindako bileran erabaki zen Igantziko ibilgailuen aparkalekua egiteko proiektuak ukituriko eskubideen eta ondasunen espropiazio prozedurari hasiera ematea, bertan agertzen dena herriaren onurako dela errekonoiztea eta deklaraztea eta okupazioaren beharra kontsideratzea.

Ukitutako ondasun eta eskubideen banakako zerrenda zehaztua hau da:

- Katastroan Encarna Matxikote Irigoien izenean agertzen den 1. poligonoko 66 lurzatiaren zati bat (44 metro karratu).

Gainera erabaki zen espedientea jendaurrean jartzea, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko hamabost egunez. Tarte horretan nahi duenak komenigarri iruditzen zaizkion ohar eta alegazio egiten ahaliko ditu eta behar diren datuak ekartzen ahaliko ditu argitaratutako zerrendan akatsik izan baldin bada horiek zuzentzeko. Proiektua eta planoak interesatuen eskura daude udal bulegoetan.

Igantzin, bi mila eta hiruko martxoaren hogeita bostean. ALKATEA, Eduardo Migelena Legasa

zur eta burniz eginak salgai. Erakuslihoetarako egokiak. ☎ 687 346 476 (Maite Labiano). **Idazmakina salgai.** Gutxi erabilia. ☎ 948 510318.

Iruñeko alde zaharrear pisu batosatzeko. ☎ 676934232 **2002-03ko futbol ligaren** kromoak aldatuko nituzke. ☎ 948 638 144

**DENETARIK 703 Bertzelakoak**  
Neska 1 edo 2 behar dira



Elizatxo Hiribidea, 14-16  
20303 - IRUN  
Tfa: 943 628 411  
Faxa: 943 628 432  
irungolasalle@ilsalle.org

**BATXILERGOAK Aurre izen-ematea: Maiatzaren 2tik 9ra**  
**LANBIDE HEZIKETA Aurre izen-ematea: Ekainaren 2tik 11ra**

**Ate irekien eguna: Apirilak 29an 18:00etan**

**BATXILERGOAK:**

- Teknologikoa
- Osasu eta Natur Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

**ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA**

- Mekanizazioa
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak

**GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA**

- Mekanizatze Bidezko Ekoizpena
- Elektronika eta Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak

**Hizkuntza ereduak: D (Euskeraz) eta A (gaztelerez)**

**KALITATEZKO HEZKUNTZA**





## Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.



**JON MAZIZIOR MITXELENA** arantzarrak 7 urte bete ditu apirilaren 7an. Zorionak denen partetik. Ongi pasa eguna!



**ITZIAR MITXELENA GAMIO** arantzarrak 12 urte beteko ditu apirilaren 16an. Zorionak familia guziaren partetik.



**ARITZ IBARRA** beratarrek apirilaren 24an 6 urte beteko ditu. Zorionak Irati eta bere amabakiren partetik.




**AMAIA ASTIBIA** leitzarrak maiatzaren 3an urte asko bete ditu. Zorionak azul tortilla.



**ANE PACHECO** beratarrek urteak bete ditu apirilaren 2an. Zorionak sorgina! Ainara, atta eta amaren partetik.



**OLATZ ETXE-PARE ELRIO** beratarrek 4 urte bete ditu apirilaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat Jone eta familiaren partetik.



**BEÑAT ARRAZTOA LAZKANOTEGI** beratarrek 2 urte bete ditu apirilaren 10ean. Auniz urtez eta muxuak Maite eta Xabieren partetik.



**GOIZUETAKO LURDES ESKUDERO** 68 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Zorionak amona. Nerea, Maria eta Felix.



**NEREA eta LOREA BAKEROK** apirilaren 13 eta 22an 3 eta 8 urte bete dituzte. Zorionak - Felicitats. Maria eta Felix.



**JOSEBA PIKABEA MITXELENA** beratarrek 6 urte bete ditu martxoaren 31n. Zorionak eta mila muxu. Clan Estacion.



**ITZIAR ALTZUGARAI ALVAREZ** lesakarrak 8 urte bete ditu apirilaren 11n. Zorionak familiaren partetik.



Zubietako **MIKEL ETXEKOLONEAK** 3 urte bete ditu apirilaren 9an. Hiru muxu haundi etxekoekin partetik! Zorionak eta ongi pasa!



**ASIER ZELAIETA TOMASENA** etxalartarrak apirilaren 19an 11 urte bete ditu. Zorionak aita, ama eta Amaiaeren partetik. Muxuk.



**NAGORE FERNANDEZ RUIZ** lesakarrak 7 urte bete ditu apirilaren 23an. Zorionak Iñaki, aita, ama eta familiaren partetik.



**ANDER OSKOZ GAGO** doneztebarrak 9 urte bete ditu apirilaren 12an. Zorionak familiaren partetik.



**NEREA MATXIARENA LASAGA** doneztebarrak 9 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Auniz urtez aita eta amaren partetik. Muxu bat.



**ENDIKA GOIA DEL MORAL** beratarrek 3 urte beteko ditu maiatzaren 1ean. Zorionak eta mila muxu denen partetik.




**ENERITZ ETA IZASKUN REKARTE BENOITXEAK** apirilaren 8 eta 16an 11 eta 6 urte bete dituzte. Zorionak atta eta amaren partetik.




Elko (Nevadako) **KYLE OWSLEY IGOAK** urtea beteko du apirilaren 20an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**XABIER TELETTEA IRATZOKI** etxalartarrak urtea beteko du apirilaren 18an. Muxu bat atta, ama eta familiaren partetik. Zorionak pobxolo!




**ARITZ IBARRA** 6 urte beteko ditu apirilaren 24an. Zorionak atta, ama eta Iratiren partetik.



**OIER ALDUNTZIN AZKARATE** leitzarrak urtea beteko du maiatzaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**MIRIAM SAPPULO GALAINEK** apirilaren 22an 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta familia guziaren partetik.



Ainhoako **UNAI LUBERRIAGAK** 5 urte bete zituen martxoaren 17an. Familia guziaren partetik muxu handi bat eta segi beti hain prestua izaten. Zorionak.



**BIXENTE ETA OIER** leitzarrek urteak beteko dituzte apirilaren 28an eta maiatzaren 4an. Zorionak! atona eta ilobari.



**JAIONE ETA ANDONI MAZIZIOR MITXELENAK** apirilaren 16an urtea beteko dute. Zorionak familia guziaren partetik eta berexiki Jonen partez.

## NORBAIT ZORIONTZEKO

**BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,26 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi ttapa  
Herriko Etxeko  
Plaza, 1  
31780 BERA

## BERRIKUNTZA

- Multimedia bidezko teorika
- Entzute bidezko teorika (CD, kasette)
- Teorika klase partikularrak
- Atzerriarrei egokitutako teorika klaseak (nazionalitatearen arabera)

948 630 800

**ALZAGA**

948 630 800 • Legia 42 • BERA

Gustuko zerbait aurkitzen dugunean zurekin konpartitu nahi dugu





**Antolatzailea:**

**BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA**

**Laguntzailea:**

**NAFARROAKO KUTXA**

# Jolasaren mamia

**GURASOENTZAKO IKASTAROA**

**Norentzat:**

- Gurasoentzat bereziki
- Hezitzaile eta begiraleentzat
- Irakasleentzat

**Izen ematea:**  
Bortzirietako euskara zerbitzua  
948 634 125 // bortziriak@euskalnet.net

**Epea:** apirilaren 30a  
**Prezioa:** 30 € (gosaria barne)

Beran, maiatzaren 10, 17, 24 eta 31n  
(larunbatak) kiraldegian 9:00-14:00



**“Zure begiendako,  
jar zaitetz esku onetan”**

**Zuen poztasuna da  
gure garantiarik onena**

**KIRURGIA:**  
Miopia  
Astigmatismo  
Hipermetropia  
Bista nekatua

**Donibane Lohitzuneko Poliklinika:  
0033 559 513 144**

**San Juan de Luz  
laser**





## Himalayako Mendialdean: **SHERPA**

Sherpek, bide-erakusle trebeek eta garraiatzaile nekazinez, gailurreraino eramaten dituzte espedizioak, baita egoerarik txarrenetan ere.

## Nafarroako Mendialdean: **CEDERNA-GARALUR**

Orientazioa eskainiko dizugu  
Laguntza eskainiko dizugu  
Finantziak bilatuko dizugu  
Zure proiektuen gailurrera iristen lagunduko dizugu

